

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2020-MAIATZAREN 29A-417.ZENBAKIA

KARKARA



OPOR GARAIA

**UDA HONETAN
ZER?**

PUBLIZITATEA



Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

22, 26, 28, 49, 55 eta 60 eserleku dituzten literadun autobusak ditugu.

Ubegun industria gunea, 4 AIA-ORIO
943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)
Fax-a: 943-89 05 62
alustiza@autocaresalustiza.com



Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
 www.cristaleriaanorgatxiki.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak



Aristerrazu Jatetxea

Andatza auzoa · AIA
 943-83 45 21
 www.aristerrazujaetxea.com

edaritegia **Antilla** *jaetxea*

Abeslari kalea, 2
 ORIO
 943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitartekoak

arkaitz taberna
 ••• urio •••

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

Pelotari, 5 · ORIO
 943-83 00 34
 autolan13@hotmail.com



AUTO - LAN C. B.



fontana iturgintza
 iturgintza · gasa · berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dubxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO
 fontana-jul@hotmail.es
 www.fontaneria-fontana.com
 943-53 98 88 · 661 26 28 28

BODEGAS *Gailur*

01307 BANCOS de EBRO
 Tel./Fax: 945 20 91 58
 www.bodegagailur.com
 Arabar Errioxa

ZUDUGARAI



Galeria Txokolina
 Edurren komertzioa

Tel.: 943-83 03 86 · Fax-a: 943-83 59 52
 txakolizudugarai@euskalnet.net · www.txakolizudugarai.com

Carmen eta Txomin
 ARRAINDEGIAK



TXOMIN ARRAINDEGIA
 Eusko Gudarien kalea, 44
 943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
 Arizaga kalea
 943-83 05 37



KARKARA 417

2020-MAIATZAREN 29A

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
IÑIGO GAITON

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 5 | Iritzia Aiora Larrañaga Solaberrieta
<i>Isilpean gordetzen den errealitatea</i> | 32 | Ikasleak idazle Aiako Lardizabal
Herri Eskola |
| 6 | Hitz tantak Izaro Altzibar
<i>Joseba Verheghe</i> | 33 | Moila bazterretik Eli Huegun
<i>Konbergentzia</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Iñigo Gaiton
<i>Itxaspera ez, maitea</i> | 34 | Akuilua hartuta Anuska Esnal
<i>Urtebete zizelkari</i> |
| 10 | Gutunak | 35 | Nire honetan Onintza Lete Arrieta
<i>Zerrenda</i> |
| 12 | Oroimenaren kutxa Iñaki Iturain
<i>Bilbao-Behobia autopista Orion</i> | 37 | Euskara Xabier Sukia
<i>Ez da fisika kuantikoa</i> |
| 15 | Herrian galdezka | 38 | Osasuna Edurne Erkizia
<i>Begiak zaintzeko aholku errazak</i> |
| 16 | Erreportajea Aiora Larrañaga
Solaberrieta, Iñigo Gaiton eta
Onintza Lete Arrieta
<i>Zalantza izpiz josita dator aurtengo
uda</i> | 41 | Bazkide kluba |
| 26 | Erreportajea Iñigo Gaiton
<i>Azken luzean erabakiko da
estropada</i> | 42 | Plazan bazan |
| | | 45 | Zerbitzuak |
| | | 46 | Hasi bertsotan Iñaki Gurrutxaga |

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.

Soreasu 1. 20730

AZPEITIA

943-83 15 27

karkara@karkara.eus

www.karkara.eus

Lehendakaria

Rikardo Uzkudun

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta

Erredaktore taldea

Onintza Aiestaran

Onintza Lete Arrieta

Elizabete Manterola

Iñigo Gaiton

Rikardo Uzkudun

Izaro Altzibar

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Publizitatea

Leire Martija

Ale honetako

kolaboratzaileak

Iñaki Iturain

Eli Huegun

Anuska Esnal

Xabier Sukia

Edurne Erkizia

Banatzaileak

Endika Ruiz (Orio)

Manex Dorronsoro (Orio)

Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oría)

Lege Gordailua:

SS-346/90

ISSN: 1132-1105

Tirada: 3.450 ale




Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
udala



Lagundu plastikoak murrizten

1. Zuzenean otarrean sartu produktua
2. Behar baduzu, eskatu eta eraman etxera gure poltsa berberabigamiak
3. Humengoan, etxetik ekar ditzakezu poltsak

GOZATEGI

FRUTADENDA

BIO

azkue
karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86



IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

iglesiascerrajerros@yahoo.es
www.iglesiascerrajerros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

24orduko zerbitzua

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



Joseba
AROTEGIA · CARPINTERIA

687 683 427
josebaarotza@gmail.com

ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
AROTEGIA OROKORREAN

ITZIAR
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



BPXport

Laister gara **elkarrekin!**

KARELA KIROLDEGIA



GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com

Xarkitektura

www.xsarkitektura.com

herrikobarra, 11 behea · ZARAUTZ · 943-13 43 58

eraikuntza zerbitzuak
eraikinen mantenua
errehabilitazioak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
obrak




ZAHARREN
BABESLEKUA
ORIO-1975

BAZKIDE EGIN NAHI DUZU?
Deitu telefono zenbaki honetara
943-83 53 98
MENUAK EMATEN DIRA

Herriko Plaza, 1

Isilpean gordetzen den errealitatea



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Ziurgabetasun egoera batean murgildurik gaudenaren sentipena dut. Zalantzas betetako asteak bizitzen ari gara, eta horrek kezka eta ezinegoa sortzen digu herritar askori. Etorkizun beltza datorkigula helarazten digute etengabe. Dena den, aste honetan errealitate gordinarekin topo egin dut bat-batean. *Zer moduz zaudete?* galdetu nion aurreko asteburuan oriotar bati, kalean topatu ginenean, eta benetan gogorra izan zen haren erantzuna: "Biziraun nahian gabilta", esan zidan. Bi haur txiki dituen familia da, eta gurasoak lanik gabe geratu dira, hainbat arrazoiengatik diru-sarrera oso txikiak jasoz. Isilpean gordetzen den errealitatea bada ere, ez da salbuespena. Koronabirusaren gaiak eztanda egin zuenetik, behin eta berriz entzun dugu pandemiak gizartean eragin duen arrakala, baina datuei aurpegia jartzean gaia desberdin ikusten da.

Handik bi egunera, Anuska Esnal Orioko alkateak eta Xabier Ibarguren Kultura, festa eta gazteria batzordeburuak agerraldia egin zuten COVID-19ak sortutako osasun larrialdiari aurre egiteko azken hilabeteetan udalak hartu dituen neurrien berri emateko, eta atentzioa eman zidan alkateak esandakoak. Antza denez, aurten dagoeneko iaz urte osoan baino larrialdi laguntza eskari gehiago jaso ditu udalak, eta ekarpen ekonomikoa egin behar izan dio elikagaien bankuari, COVID-19ak sortutako testuinguru berrian eskariak gora egin duelako. Baina, egoera hau ez da kasualitatea izan, lehendik egoera zaugarrian zeuden familiak gogor kolpatu dituelako koronabirusak sortutako krisiak. Ez da ahaztu behar, *Pobrezia, gabezia eta gizarte bazterkeria Orion* ikerketa lanaren arabera, Orioko 200 famili inguruk, herriko familien %11,3k, pobrezia egoera larria bizi zutela koronabirusaren krisia lehertu aurretik, eta herriko familien %20 pobrezia egoera erlatiboan zegoela. Beraz, imajinario gutxi behar da, etxe askotan krisiak eragin duen errealitatea irudikatzeko.

Irakurle bakoitzak atera ditzala bere ondorioak, datuek beren kabuz hitz egiten baitute. ■■■

"BIZIRAUN NAHIAN GABILTA" ESAN ZIDAN ASTEBURUAN BI HAUR TXIKI DITUEN BIKOTE BATEK



Garraio frigorifikoa Nazionala eta Nazioartekoa



kamarak



bilbideak



generoa



garraiok

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Joseba Verhegge

TESTUA: IZARO ALTZIBAR

ARGAZKIA: UTZITAKOA

Arkitektura beka batek eraman zuen Panamara Joseba Verhegge. Pandemiak bertan harrapatu du, eta lanean zebilen proiektua bete-betean gelditu da. Agintariak konfinamendu neurri zorrotzak hartu dituztela azaldu du Verheggek, eta esaterako, orain arte alkohola erostea debekatuta egon dela kontatu du.

Zertara joan zara Panamara?

Global Training bekaekin etorri nintzen urtarrilean, arkitektura estudio batera, Panama hirira. 30 pisuko etxebizitza batzuk diseinatzeari ekin nion iristean; hiriko eraikin guztiak oso altuak dira hemen. Lehenengo faseetan aritu naiz, bekadun moduan etorri naizelako. BIM masterra egin nuen, (Eraikitze Informazio Eredua) planoak egiteko sistema berri batean oinarritzen da.

Aspaldi, eskuz egiten ziren arkitektura marrazkiak, gero, ordenagailuz hasi ziren egiten planoak, eta gaur egun, hiru dimentsioko modeloak egiten dira ordenagailuan, eta informazio guztia biltzen du plano bakar batek. Diseinuko elementu bakoitzaren informazioa jasotzen du plano bakar batek horrela. Sistema horrek ahalbidetzen du proiektu batean lanean dauden guztiek informazioa leku berean biltzea eta elkarren arteko komunikazioa errazagoa izatea. Analisi teknikoak, aurrekontuak eta halakoak egitea ere errazten du metodo horrek, eta akatsak sahiesten ditu aldi berean. Sistema hori mundu osoko arkitektura enpresa gehienetara ari da sartzen, eta hori da egin nuen masterraren funtsa.

Nola eragin du pandemiak proiektuan?

Pandemia iritsi artean diseinatze lanetan genbiltzan, eta orain blokeatuta dago proiektua. Eraikin hauek egin behar zituen bezeroak atzera egin du momentuz, ez dakielako pandemiak utziko duen krisiarekin salduko dituen eraikiko dituen etxebizitzak. Gainera, kontratua sinatzear genuen pandemia iritsi zenean, eta beraz, bezeroa atzera botatzen bada, orain arte egindako lana alferrikakoa eta doakoa izango da. Beste proiektu batzuetan ere banabil murgilduta, eta zenbait kontratu sinatuta daude. Arkitektura munduan, horrela izaten da askotan. Proiektu askotarako

diseinatzen dugu doan, eta lehiaketetara aurkeztu gara.

Nolakoak izaten dira lehiaketak?

Desberdinak dira obra publikoak edo pribatuak izan. Irabazi berri dugun lehiaketa, adibidez, pribatua da. Kasu hauetan, bezeroa herrialdeko hainbat arkitektura estudiorekin jartzen da harremanetan, eta buruan duen proiektua aurkeztu du. Orduan, denbora epe bat ematen zaio estudioari proposamen bat aurkezteko, eta bezeroak arkitektura estudio guztien planoak jaso ondoren, bat aukeratzen du aurrera jarraitzeko.

Zein da COVID-19aren egoera Panaman?

8.500 kutsatu daude herrialde osoan, eta 250 pertsona hil dira. Esan behar dut hemengo neurriak Euskal Herrikoak baino askoz ere zorrotzagoak direla. Emakumeak, adibidez, astelehen, asteazken eta ostiraletan irten daitezke kalera, eta gizonezkoak, berriz, astearte eta ostegunetan soilik. Hasiera batean, larunbatetan ere irten gintezkeen gizonezkoak, baina *zigor* modura, egun horretan ateratzea debekatu zuten agintariak, ustez *gaizki* portatu ginelako. Gainera, irteteko ordutegi zehatzak ditugu herritar guztiok, pasaporteko zenbakiaren arabera. Nire kasuan, goizeko 06:30etik 08:30era irten naiteke erosketak egitera, astearte eta ostegunetan, besterik ez. Maskaren erabilera derrigorrezkoa da, eta isunak jartzen dituzte erabili ezean. Poliziak eta kontrolak daude bazter guztietan, eta supermerkatuetan ere pasaportea eskatzen dute. Aurrekoan ordutegiz kanpo itzuli nintzen autoan, eta atzekaldean ezkutatuta joan behar izan nuen. Pasada bat da. Zorionez, Alemaniako bi lagunekin bizi naiz, eta ondo moldatzen gara. Horrez gain, konfinamendu hasieran alkohola debekatu zuten. Batzuen iritziz, poliziarekin arazoak ekiditeko hartu zuten erabaka agintariak, ez beste batzuen esanetan, gobernuak ematen dituen dirulaguntzak alkoholean ez gastatzeko neurria da.

Noiz duzu etxera itzultzeko asmoa?

Uztaila erdialdera bueltatuko naiz etxera. Koronabirusak eragindako osasun krisia hasi zenean, itzultzeko aukera eskaini ziguten, baina beka amaitu bitartean hemen geratzea erabaki nuen. ■■■



Itxaspera ez, maitea

ARGAZKIA ETA TESTUA: IÑIGO GAITON

Maiatzaren 13an ireki zuten Itxaspeko buelta, mantenu-lanak egiteko bi hilabetez itxita egon ondoren. Berritasun batekin anuntziatu zuten oriotarrok hain geurea dugun mendi bueltaxkaren irekiera: aurrerantzean ezingo da autoz ibili hango errepidean, baserrira edo landetxera joateko ez bada. Akabo, hortaz, ehiztarien hamabost patrolak udazkeneko ehiza egunetan, soldadu errusiarrenak bailiran bide bazterrean lagata. Txoriak hegan eta ehiztariak oinez, ez al da tratu justuagoa? Bukatu dira hango talaian egin beharrekoak ere gaztetxo kuadrilla, *selfiezale* eta –ez hain— ezkutuko maitaleentzat; ezin gehiagotan Getariako arratoiari begira autoko argiak itzali, gauaren argi-ilunez gozaten jarraitzeko. Tira, denak du prezio bat; Itxaspeko buelta motor soinu gutxiagorekin egiteak ere bai, antza. ■■■





Aluaneko aldapa

XALTXERAK TALDE FEMINISTA

Orioko emakumeok ez dugu gure herria gizonen bizi duten askatasun berdinarekin bizi. 2019ko uztailean Orioko emakumeon beharren diagnosi bat (<https://orio.eus/albisteak/17167-orioko-emakumeon-beharren-diagnosia-deskargatu-daiteke-webgunetik>) argitaratu zen. Gure bizipen pertsonalekin bat egiten duen diagnosi horrek Orioko emakumeok herrian erasotuak zein epaituak izateko beldur eta lotsa-sentimenduak ditugula ondorioztatzen du. Orion, nahiz eta herri txikia eta konfiantzazkoa izan, ez gara eroso sentitzen. Herria gizon eredu hegemonikoarekin lotzen duen sinbolo maskulinoz beteta dago. Orioko iruditegia, orokorrean, gizonekin lotzen da (arrantza, parrillak, kirola...), eta horrek guztiak gure deserosotasunean eragiten du, ez baigaituzte aintzakotzat hartzen, horrela bizi dugu, behintzat.

Iruditegi ofizial horrez gain, zakilak alde guztietan marraztuta ikusi ditugu, eta horrela hazi gara (gure herriko paretetan, kuadernoetan, arbeletan...). Zakilen presentziak gizonen dominazioa eta espazio publikoaren jabetza adierazten du. Zakilen adierazpenak dominazio maskulinoarekin lotura zuzena du. Gizonen espazio publikoaren



Orioko Kale Nagusiaren hasiera. AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

apropiazioarekin. Horri aurre egiteko, bi aukera ditugu: edo zakilak adierazpen publikoetatik ateratzea, edo genital ezberdinen adierazpenak egitea eremu publikoan. Herria denona izan dadin eta denok lekua izan dezagun.

Bestetik, aldarrikapenak eta elkarretaratzeak egiteko espazio nagusia beti herriko plaza izan da. Baina, azkenaldian, herriko plaza obretan zegoela eta, Kale Nagusiko aldaparen beheko aldean egin dira. Guretzat oso mingarria izan da herritarren eskubideen aldarrikapenerako espazio nagusi bilakatu denak zakil baten presentzia sinbolikoa izatea, eta gainera, elkarretaratzeen zabalpen guztietan (kartelak, sare sozialetako mezuak...) sinbolo hori indartzea. Guretzat kontraesankorra da

aldarrikapen feministak zakilaneko aldapa deiturikoan egitea, eta are gehiago deialdia izen horrekin egitea. Benetan uste duzue azaroaren 25eko emakumeen kontrako indarkeriaren aldarrikapena “zakilaneko aldapan” egin daitekeela? Gure ustez, ez, ezezko biribila ateratzen zaigu gainera.

Kale Nagusia “Aluaneko aldapa” izendatzeko ekintza probokatzaileria izan zen, badakigu. Hori zen gure helburua: hausnarketa eta eztabaida sortzea; ikustaraztea Orion maskulinitatearen dominazioa mantentzen eta berresten duten sinboloak indarrean daudela. Hori aldatu beharra dago, guztiontzat izango den herri bat nahi badugu. “Kaleak gureak dira” leloa aldarrikatzen dugu, behin eta berriro, martxoak 8

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

bezalako egunetan. Gure kaleetan lasai ibili nahi dugu, beldurrik gabe, lotsarik gabe. Herria emakumeona ere bada eta gureganatzen ari gara.

Zenbat denbora eman behar diogu jendeari aldaketara egokitzeko? Norbait "Aluanekua" izatera pasatzearen zer alde iraindu dezake?, hori ere hausnartu beharko genuke, denok baikatoz alutik. Itxarroteaz nekatuta gaude eta ez gara baimena eskatzen ari. Aluaneko aldaparen ekintza guztiontzat herri bat sortzeko prozesu horretan pauso bat izan zen, eta martxoaren 7an egin genuen gaueko manifestazioa, beste bat. Xaltxerok horretan jarraituko dugu, guztiontzat herri bat eraikitzen.

Gora Borroka Feminista!

Euskararen Tristura

IKER

Gozategi taldeak ederki azaltzen du euskal musikaren egoera *Gure chiquitaco cantac* abestian. Baina egoera, tamalez, ez da musikara mugatzen.

Atzo, Olatu goxoki-dendara joan eta eskaparateetan bi kartel handi zeuden, Orioko Futbol Taldearenak ziren, eta taldeko kromoak salgai zituztela adierazten zuten. Irakurtzen hasi eta ahoa bete hortz geratu nintzen: euskaraz dagoen bakarra klubaren izena da, beste den-dena gaztelera hutsean dago.

Bere erroetara lotuta omen dagoen herria omen da Orio, ba gure errorik handi eta sendoena ahaztuta uzten ari gara, gure hizkuntza.

Tristura handiz.

Konfinamenduan hildakoen hileta elizkizunak

ORIOKO PARROKIA

Orioko parrokian elizkizunak egiteari ekin zaio maiatzaren 11n, eta konfinamendu garaian hil diren herritarren hileta elizkizunak programatu dituzte hurrengo asteetarako.

Maiatzaren 29an: Jose Francisco Manterola Sarasua, apirilaren 9an hila.

Ekainaren 1ean: Maria Teresa Ruano Soto, apirilaren 12an hila.

Ekainaren 3an: Domingo "Mingo" Ochagavias Torre, apirilaren 13an hila.

Ekainaren 5ean: Rita Etxeberría Olaizola, apirilaren 15ean hila, eta Mari Carmen

HILDAKOAK

- **Francisco Huertos Perez.** Orion, apirilaren 29an. 89 urte.
- **M^a Carmen Solaberrieta Urdangarin.** Orion, apirilaren 28an. 90 urte.
- **Luziano Iribar Azkue.** Orion, maiatzaren 14an. 63 urte.
- **Miguel Angel Albeniz Zudaire.** Orion, maiatzaren 15an. 78 urte.

Solaberrieta Urdangarin, apirilaren 28an hila.

Ekainaren 8an: Angela Mateos Jimenez, apirilaren 18an hila

Ekainaren 10ean: Eusebia Sanchez Fernandez, apirilaren 18an hila.

Ekainaren 12an: Francisco Huertos Perez, apirilaren 29an hila. ■■■

JAIOBERRIAK

- **Dylan Jose Mendez Montano.** Orion, otsailaren 17an.
- **Abraham Jarincy Galeano de Linarte.** Orion, otsailaren 18an.
- **Kiara Ferrer Martinez.** Orion, otsailaren 23an.
- **Aratz Larrañaga Abad.** Orion, otsailaren 24an.
- **Mateo Sai Ramos Mendoza.** Orion, martxoaren 6an.
- **Iñigo Arostegi Uranga.** Orion, apirilaren 4an.
- **Jare Egaña Elizalde.** Orion, apirilaren 6an.
- **Nur Baramendi Gonzalez.** Orion, apirilaren 8an.
- **Kepa Loidi Etxabe.** Orion, apirilaren 9an.
- **Martin Bilbao Gonzalez.** Orion, apirilaren 24an.
- **Etain Etxeberria Irastorza.** Orion, apirilaren 30ean.
- **Laida Sarriegi Cortes.** Orion, maiatzaren 11n.
- **Martin Gonzalez Hernandez.** Orion, maiatzaren 13an.
- **Aishaimaan Muhammad Shafique.** Orion, maiatzaren 13an.
- **Xiana Trillo Fernandez.** Orion, maiatzaren 19an.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Bilbao-Behobia autobidea Orion



IÑAKI ITURAIN iiturain@gmail.com

ARGAZKIAK: ORIOKO UDAL ARTXIBOA

Oriotik pasatzen den A-8 autobidea eraikitzen hasi zirenetik mende erdi pasatu da. 1960ko hamarkadan hasi ziren haren obrak Bizkaian eta Gipuzkoan. Bilbotik Behobiaraino doan autobidearen lehenengo inaugurazioa 1971ko ekainaren 25ean izan zen: Basauri-Amorebieta zatia; Espainiako printze-printzesak etorri ziren, Juan Carlos eta Sofia. Zarautzik Zumaiarako tartea 1974ko maiatzaren 1ean inauguratu zuten, eta Zarautzik Donostiarako, 1974ko uztailaren 24an.

Zeruko Argia astekariaren 1972-06-11ko zenbakiak orduan eraikitzen ari ziren autopistaren gaineko datu asko eman zituen: "... 105 kilometroko bidea Bilbotik Behobiara, 20 milioi tona lur eta haitz, 90 zubi, 3 kilometro lurpean, 30.000 tona burdin, 200.000 tona porlan, 100 milioi pezeta kilometroko...". *Zeruko Argia*-k zioen autobidea beharrezkoa zela, erruz arinduko zuela bideetan autoen emana, eta aitaren batean iritsiko ginela euskaldunak Bilbotik Baionara. *On handia egingo dio Euskal Herriari*, amaitzen zuen.

Autopistak Orion duen sarrera-irteera 2009ko abuztuaren 15ean inauguratu zuten, Ama Birjinaren egunean. Aia eta Orio agertzen dira

irteerako seinale urdin erraldoian. Egun hartan kolore horiko traineru bat atera zen autobidetik Orion. Hura izan zen aurreneko ibilgailua irtetean: trainerua zekarren erremolkea. Ikur bat zen, sinbolo bat, Orioko herriaren garaipen batena.

Baina autopista hura eraiki zenetik horrenbeste urte pasatu eta gero, sarrera-irteera egiten hasi, eta zer da, eta alde bakar batera eman zioten, Donostia aldera. Bilbora joateko, oriotarrok Zarautzera joaten segitu behar, aldapan gora eta behera, ordura arte bezala. Kasu bakarra da A8 autobidean hori gertatzen dena; gainerakoetan alde batera zein bestera dago sartzea eta irtetzea. Lan-erdi haren inauguraziorako egokiagoa zen, beraz, 14ko trainerua baino, 7ko trainerilla.

Autobidearen onurak begibistakoak dira: azkarrago eta lehenago iristen gara. Horretarako egin zen. Baina obra handi guztietan bezala, izan zuen bestelakotik ere. *Zeruko Argia*-k ikusten zion alde txar bat: "Baserri asko eramango ditu aurretik, Usurbilgoak bakarrik aipatuta, sei: Artikula Handi eta Txiki, Benta, Aitzeta, Isturinzabal eta Arburu...".

Orioko kasuan ez ziren horrenbeste izan. Autobideak hiru etxe bota zituen: Dato palazioa eta Altuna eta Lizargate baserriak, inguruko baserritarrek San Martin jaiak

ospatzeko festa-lekua. Bertsolariek oroimenez jotako bertso-sorta jarri zioten Lizargatekin batera galdutako festari: "Lizargateko festa bukatzen zanian, berriro festaren zain modu onenian, tristura etorri zan hiritamabian, autopista egiteko bota zutenian". Galera hura Ortzaikak konpondu zuen, festa hara eramanda.

Hobeto egin zitezkeenak

Orioko udalerriari dagokionez ere, ekarri zuen zenbait kalte A8 autobidea eraikitzeak.


1. Tunel baten bidez, Zarauzko Astitik Oriora mendipetik pasatzeko proposamenik izan zen, eta trenbidearen parez pare, orain arraun kluba dagoen aldetik Txankara pasatzeko. Baina errioa Oribarzarretik igarotzea erabaki zuten, ibaiaren erdian bi zutabe erraldoi jarrita.
2. 1974 urrun hartan Oriori ez zioten ez sarrerarik ez irteerarik eman. Autopista egin arte, jende asko gelditzen zen Orion bazkaltzen, Donostiatik Bilborako ibilbidean. Orioko bisigua famatua zen ordurako; eta herriko erretegi eta jatetxeak amu ederra, biajante eta bidaiarientzat. Irteerarik gabeko autopistak Orioko ateak itxi zizkien; handik aurrera, presaren presaz, autobideko zubi gainetik ikusten zuten lehen bazkaltoki zuten herria.



1962ko maiatzeko argazkia, Orioko hondartzaldea, autobidea egiten hasi aurretik.



1973ko iraila, erriean autobidearen posteak jartzen ari ziren.



1974ko ekaina, autobidearen zubia bukatzeaz zegoela.

3. Autopistako zubiak oinezkoak eta bizizaleak ahaztu zituen. Aukera ederra zegoen oinezkoentzako eta bizikletentzako bidea eransteko, Oriotik Zarautz aldera zubiaren azpitik pasatzeko, baina ez zuten halakorik egin.

4. Autopistak lurrezko hesi erraldoi bat jarri zigun herritarro, eta hondartzarako ordura arteko bidea itxi, Bikamiyotan eskuin aldera egiten zuena.

5. Hamazazpi urte dira A-8 autopistaren peajea ordaintzeari utzi behar

zizaionetik, amortizatzeko epea bete zenetik; baina Irun eta Bilbo artean bizi garen euskaldunok ordaintzen segitu behar izan dugu. Aldiz, Bilbotik Galiziaraino joateko autopistetan ez dago ordaindu beharrik, haiek debaldekoak dira. Zergatik?

OROIMENAREN KUTXA AUTOBIDEA ORION



Autopistako Oriko sarrera-irteerako ordain-tokia. AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA



Gipuzkoako bidegorrien mapa, GFaren eskuorria.

Kontrako iritziak

Autobidea eraikitzen hasi zirenetik, Orion izan ziren proposamenak gauzak bestela egin zituzten. Luis Cisnerosek idatzi zuen egunkarian autopistak erriroa gainditzeko egin zuten zubiaren proiektuaren kontra, hondartzarako bidean egin zuten lur-betelan erraldoia traba zelako, eta herriari toki asko kentzen ziolako.

Askoz geroago, hondartzatik Txankara doan bidea egin

zutenean, Patxi Danbolin zenak hitz egin zuen ingeniariarekin; hala dio *Orio herrixka* bere liburuxkan. Proposatuz bidea ezkeralderako menditik joan beharrean eskuineko egitea, autopista azpitik pasatuta, eta oraingoa baino askoz txukunagoa eta laburragoa izango zela, oraingoaren heren bat eta hainbeste bihurtzuna eta aldaparik gabea. Patxi liburuxkan dio erantzun nahiko ankerrak jaso zituela.

Ez zieten kasurik egin. 2009ko abuztuaren 15ean Orioko sarrera-irteera inauguratu zenean, ospakizunerako iker moduan, jartzekotan, ez 14ko trainerurik eta ez 7ko trainerillarik, aski zuten 5eko batela, edo skiff txiki bat. Orioko kasuan, gauza asko hobeto egin zituzketen, egin zuten baino askoz txukunago. Oriotarrantzat B-B autopista ez da Bilbao-Behobia, hauxe baizik: Bai-Baina.

Eta bizikleta bidez zer esan! Lehen autobidearekin bezala, orain bidegorriekin ere bazterrean geratuko eta da, ba, Orio? Gipuzkoako Foru Aldundia azken urteotan ahalegin serioa egiten ari da Donostian eta hainbat herritan bizikletan ibiltzeko joera handitzeko. 2019ko azaroan, informazio-orri bat kaleratu zuen, urteotan egindako lanen eta planen berri emateko. Eskuorrian Gipuzkoako mapa ageri da, bi modutan: batetik, Gipuzkoa osoa hartzen duena; eta bestetik, zatika, zazpi zatietako bakoitzean Gipuzkoako zonalde bat ageri da, hango herrietan egindako bidegorri zatiak. Orio ez da agertzen zati horietan, kanpo geratzen da. Adar jotzea ematen du! Autopistakoa gogorarazten du! Noizko Orio, Motondotik barrena, Aginagarekin eta gero Donostiarekin lotuko duen bidegorria?

Eta Zarautzekin? ■■■

Ba al duzu koronabirusarekin kutsatzeko beldurrik itxialdiaren arintze fasean?



MIKEL AGOTE

Ez diot kutsatzeari beldur handiegirik. Gainera, arinaldi prozesua lehenago abiatu behar zutela iruditzen zait, hemen behintzat. Nire esku dagoen guztia egiten dut osasun neurriak betetzeko; hortik aurrera, tokatzen bada tokatu da. Normaltasun handiarekin bizitzen ari naiz hau guztia. Enpresa txiki bat jarri genuen martxan duela hiruzpalau urte, eta autonomia naizenez, lanean jarraitzen dut. Uste dut gaizki informatuta egon garela; iruditzen zait agintariek beldurra erabili dutela hau guztia kudeatzeko, eta hori ez da ona. Surfak irakatsi dit beldurra ez dela ona muturreko egoera bati aurre egiteko, gure burua blokeatu egiten delako eta ez duelako uzten aurrean duguna behar bezala aztertzen. Birusak leku jakin batzuetan sarraskia eragin du, baina, uste dut, gehiago hartu behar zirela kontuan tokian tokiko egoerak. Neurri berak ezarri dituzte Estatu osoarentzat eta ez zait logikoa iruditzen.



JUANI AGIRRE

Pasa duguna pasa eta gero, ba kutsatzeko beldur txiki hori beti geratzen da buruan. Hala ere, uste baino hobeto ari naiz bizitzen arinaldi prozesua. Agian, batzuetan baimenak azkartxo hasi direla ematen iruditzen zait, baina ez dakit. Itxialdian ondo egon ginen etxean, baina kalera ateratzeko askatasun pixka bat eman zigutenean asko eskertu nuen. Egia esan, dendan primeran ari gara lanean, agian jendeak gozoki premia handiagoa izango duelako halako egoera baten aurrean, kar-kar-kar. Datozen hilabeteetan, uste dut udaz gozatzeko aukera izango dugula herritarrok, gehiago edo gutxiago. Jende pilaketak-eta izango dira hondartza aldean, seguru, baina normala ere izan daiteke, hein batean. Dena den, udan gertatu daitezkeen jende pilaketa horiek kutsatzeko beldur pixka bat eragiten didate. Diotenez, udazkenean birusak ekarrialdia izan dezake berriro. Ikusiko dugu zer gertatzen den.



JESUS MARI ALKORTA

Egia esan, ez dut kutsatzeko beldur handiegirik, arrisku talde baten barruan egon arren. Arinaldi prozesua gogoz hartu dut, lehen egiten genituen gauzei berriro ekiteko amorratzen nengoelako: mendira joan, lagunekin juntatu, mus partidak jokatu —azken hau oraindik egin ezin dugun arren— eta abar. Kolpetik ezarri zuten itxialdia, eta beno, pozgarria da pixkanaka lehengo ohiturak berreskuratzea, *normalitate berria* delakoaren bidean. Gobernuaren kudeaketari dagokionez, iruditzen zait benetan egoera zaila tokatu zaiela, eta ez naiz ausartzen epaitzera. Onerako edo txarrerako, orain agintean daudenak dira osasun krisian tokatu zaizkigun politikariak, eta iruditzen zait haiek esandakoa errespetatzea tokatzen zaigula. Asko birusa desagertu izan balitz bezala jokatzeko hasi gara, eta hori arriskutsua izan daiteke. Udari begira, jende asko juntatu daiteke Orion, baina niri behintzat horrek ez dit beldurrik eragiten. ■■■

Zalantza izpiz josita dator aurtengo uda

Udan koronabirusak berak ere oporrak hartuko dituen esperantza zabaldu da jendartean. Birusak datozen hiru hilabeteetan eman dezakeen hutsartean dituzte begiak —eta esperantza guztiak— herritarrek eta turismo sektoreko langileek. Inor gutxi ausartzen da, ordea, zer nolako uda izan daitekeen aurreratzera.

Testua eta argazkiak: **Aiora Larrañaga Solaberrieta, Iñigo Gaiton eta Onintza Lete Arrieta.**

Covid-19ak goitik behera aldatu —eta aldatuko— du bizimodua. Lehen arruntak ziren ohiturak, hala nola hondartzan eguzkia hartzea edo urizkinan oinez ibiltzea, jarduera benetan preziatuak bihurtu ditu Txinan hedatzen hasitako gaitzak.

Gizakiengan eragin duen izurriteaz gain, edo haren ondorioz, koronabirusak kolpe ikaragarria eman dio ehun ekonomikoari, eta gogor kolpatu ditu lan munduko hainbat esparru. Turismoa da birusaren ondorioak gehien sufritu dituen sektoreetako bat. Jendeak Aste Santuko oporrak eta udaberriaren parte handi bat etxean eman dituela kontuan hartuz gero, enpresek eta erakundeek udan dituzte jarrita esperantza guztiak. Azken egunetan nabarmen egin du behera kutsatu kopuruak, eta agintariak diotenez, sektoreko negozioek atzerritarrak hartzeko modua izango dute uztaile hasieratik aurrera.

Denborarekin ilunak apaltzen eta argiak indartzen doazen heinean, galdera ikur asko daude oraindik mahai gainean. KARKARAK elkarrizketatu dituen herritarren arabera, udaz gozatzeko aukera izango da aurten, gehiago edo gutxiago, baina dirudienez, inor ez da libratuko "normalitate berrian" bizi beharraz: San Pedro jairik ez da izango aurten, Bisiguaren Egunik ere ez uztailean, hondartzan 2 edo 3 ordu egotea aholkatzen dute gehienez, beti ere edukierak errespetatuz eta distantzia soziala mantenduz,.... Laburbilduz, aurten inor ez da libratuko udako betiko gauzak ezohiko moduan egiteaz.

"Ez daukagu ezer berririk asmatu beharrik"

ADRIAN GARCIA ORIOKO TURISMO TEKNIKARIA



"Pandemiaren aurretik egoera oso onean zegoen herriko turismo sektorea, hazten ari zen, eta horrela jarraitzeko aukera handiak zituen. Ideia asko martxan jartzeko gogoz geunden, eta hau zaplasteko handia izan da, izugarria". Adrian Garcia Orioko Turismo teknikariak azaldu du egoera berrira moldatzeko buru-belarri ari direla lanean turismoaren sektoreak aurrera egin dezan. Datu bat ematearren: Turismo Bulegora joaten diren bisitarien %30 atzeritarrak izaten dira, eta aurtengo udan, behintzat, Gipuzkoako bisitariekin konformatu beharko dute.

Txanponaren beste aldean ere ikusi ahal izan dute asteotan, ordea: bat datoz udalak eta turismo sektoreak dituzten asmoak eta osasun krisiaren ondoren indartuta aterako den turismo eredua. Izan ere, gertuko bisitarien zuzendutako kalitatezko turismo jasagarria indartu

nahi du udalak, masifikaziorik gabekoa eta orekatua. Uda honetako kanpaina gipuzkoarren pentsatuta egingo dute, eta herriak berez dituen baliabideak aprobetxatuta. "Esaterako, daukagu ibai izugarri bat, azken kilometroetan industrializatu gabeko Gipuzkoako bakarra, paraje natural izugarriak dituena, jendearentzat ezezaguna dena, eta gainera oso ondo funtzionatzen duen enpresa bat duena hor ekintzak egiteko. Eta turismo hori da turismo segurua, talde txikietan egin daitekeena, masifikaziorik gabea, aire zabalean, ibai zabalean". Orion segurtasuna eta higieña bermatuta

"EZ DUGU NAHI, BESTE HERRI ASKOTAN GERTATU DEN BEZALA, HAU MASIFIKATZERIK"

daudela irizten dio, eta orain hori azpimarratu eta indartu behar dela. "Zabalgune handiak ditugu: ibaia bera, hondartzako paseoa, mota askotako mendi ibilbideak sekulako paisaiarekin... Ez dugu ezer asmatu beharrik, hori guzti hori badugulako. Orain gure lana izango da horiek ezagutaraztea".

Turismo Plana, urtea amaitzerako

Krisiaren aurretik Orioko Turismo Plana lantzen ari zen udala, baina 2019ko martxoan egin zen diagnosis, hau da, errealitatearen argazkia, eta horrek ez du balio orain. Atzerapenak atzerapen, urtea amaitzerako prest egongo da plana. Helburua da iragartzen den turismo hazkunde hori modu orekatuan eta bideragarrian sustatzea. "Ez dugu nahi, beste herri askotan gertatu den bezala, hau masifikatzerik. Udalak ez du nahi, eta herriko turismo sektoreak ere ez". Plana osatzeko, herriko eragile anitzekin elkarlana egiteko asmoa du udalak. "Plana gardena izango da, herriari eta herritarren beharrei lotutakoa. Turismo eredua finkatuko du, eta baita herri eredua ere neurri batean. Nahi dugu hazkundera egotea, noski, baina ez edozer motatakoa, aberastasuna ahalik modu orekatuenean sor dezan".

Udal kanpinean, zuhur eta baikor

JONE OLASKOAGA ORIOKO UDAL KANPINEKO ZUZENDARIA



Astelehenean, maiatzak 25, ireki zituen ateak Orioko udal kanpinak, martxoaren 13tik itxita egon ostean. Arratsalde horretan irrifartsu zegoen Jone Olaskoaga kanpineko zuzendaria, eta gerora ere, iristear den udaz bere balorazioa egin duenean, baikor agertu da. “Oso erantzun ona jaso dugu betiko bezeroengandik; gertukoak dira, eta hori da gure indargunea. Jendea etxetik ateratzeko eta bertatik bertara oporrez gozatzeko gogoz dago”, azaldu du. “Naturaz inguratuta eta hondartza ondoan gaude, eta jendeak horixe nahi du une honetan. Lana egiteko itxaropen handia dugu. Neurriak eta segurtasuna bermatu nahi izate horrek mugatuko du gure eskaintza, ez eskaerak. Gu gara ezezkua eman beharko dugunak”, iritzi dio. Aurtengo helburua? “Urteko diru sarreren erdia baino gehiago

udako denboralditik etortzen da, eta beraz, urteko fakturazioaren %50 lortzea da gure helburua”. Egingarria dela uste du zuzendariak; izan ere, “neurriak lasaituta, gehiago irabaztea lortuko genukeela argi dugu, baina egin dugun esfortzuaren ondoren, ezin da arriskurik hartu”, esan du irmo.

Martxotik neguko lanetan eta egokitzapen lanak egiten aritu dira. “Esaterako, lehendik bazegoen bungalowak erreserbatzeko aukera, baina ez partzelak. Hona etorri eta ilaran itxaroten zen. Egoera honetan, ordea, ezinezkoa da funtzionamendu horrekin jarraitzea, eta erreserba sistema hobetzen ibili gara”.

Kanpineko bezero asko urterokoak dira, eta horiei banan-banan abisatu diete aldaketez. Izan ere, kanpinak 768 lagunentzat du tokia, baina edukiera osoan zabaltzerik ez dute izango epe labur-ertainean. “50 bezerori

deitu diegu, erreserba egiteko aukera eskaintzeko, bestela, tokirik gabe geratzeko arriskua izango luketelako”.

Ez dute aldaketa handirik espero bisitariei dagokienez: “Gipuzkoar eta nafar asko etortzen da lehendik ere kanpinera. Gogoz etorriko dira, eta neurriak hartu beharko ditugu, egoera kontrolpean izateko, eta atzerapausorik ez emateko”.

Herrigunean bezala, kanpinean ere jolastokia itxiko dute, baita Txikitxokoa eta parrilen eremua ere, “bigarren fasean behintzat”. Igerilekuari dagokionez, berriz, ez du kezkarik Olaskoagak: “Bainua eta eguzkia hartzea baimentzea aurreikusten dugu, bakoitzak bere partzela edo bungalowa duelako; ez diogu aparteko arazorik ikusten horri”.

Orain ekaineko lehen asteburuan dituzte jarrita begiak. “Kritikoa izango da ekaineko lehenengo asteburua eguraldiak laguntzen badu, baina %50eko muga jarriko dugu edukieran. Denok gaude lanera itzultzeko irrikaz, baina kontuz jokatu behar dugu”.

Gertuko bezeroak ez ezik, udaberrian eta udazkenean adineko atzerritar asko ere izaten dituzte udal kanpinean. Aurten ikusteko dago noiz eta zer herrialdeetatik etorriko diren, eta horrek erabakiko du aurtengo denboraldiko balantzan balekoa edo erdi-ipurdikoa izan den.

"Iruditzen zait bukatu direla lehen izaten genituen jende pilaketak"

AMAIA GOZATEGI BOGA BOGA TABERNA-JATETXEO ARDURADUNA

Amaia Gozategi Orioko Kanpineko Boga Boga taberna-jatetxeko atea ireki berritan harrapatu zuen koronabirusaren krisiak. Martxoaren 13an jaso zuen Orioko Udalaren abisua, taberna itxi behar zuela esanez. "Ezuste albeste" izan zela aitortu du, orduan oraindik Espainiako Gobernuak ez zuelako jakinarazi itxiera orokorra izango zenik.

"Jatetxea ireki aurreko hilabetean denboraldia prestatzen aritu nintzen. Aldaketa batzuk egin nituen, lehen hilabeteetan jende gutxiago ibiliko zela aurreikusita, baina ez nuen imajinatu ere egiten horrelako zerbait gertatuko zenik". Aitortu du martxoko lehen egunetan "nahiko poliki" hasi zirela, eguraldia lagun zutela; "horregatik, ixteko agindua kolpe handia izan zen guretzat".

Bi hilabeteko etenaldiaren ondoren, ireki ditu berriro atea Boga Bogak, baina Gozategik argi du aurtengo denboraldia ez dela gainontzekoak bezalakoa izango. "Oraindik goiz da uda nolako izango den aurreikusitako, baina iruditzen zait bukatu direla lehen izaten genituen jende pilaketak. Herriko gainontzeko dendetan egiten den bezala, tabernetan ere segurtasun neurri zorrotzak bete behar ditugu, eta edukiera mugatu.



Dena dela, uste dut eguneroko martxak erakutsiko digula nola antolatu beharko dugun egoera berrian; ikusten eta ikasten joango gara. Gainera, oraindik uda garaia nolako izango den eztabaidatzen ari dira instituzioak, eta horiek hartzen dituzten erabakiek zeharo baldintzatuko dute gure errealitatea".

Eragin zuzena

Gozategik ondo ezagutzen du Orioko hondartzaguneko turismoa, berak bizi izan zuelako zonaldeak jasan duen bilakaera. "Garai bateko giroa ez da gaur egungoa. Erabakiek eta aldaketek guztiz aldatu dezakete herri bateko turismo eredua, eta uste dut hori gertatuko dela COVID-19arekin ere", azaldu du.

Orain, esaterako, herrialdeetako mugak itxita daude, eta neurri horrek bere negozioan eragin zuzena izango duela uste du

Gozategik, udaberrian atzeritarrak izaten direlako tabernako bezero nagusiak. "Kanpinean bertan egiten dute erosketak, eta otorduak ere tabernetan egiteko ohitura izaten dute. Zentzu horretan, hasieran behintzat beherakada nabarmenduko digula uste dut".

Bestetik, edukieraren gaiak ere asko eragingo duela iritzi dio. "Jatetxe edo taberna bat ezin da bideragarria izan gutxieneko bezero kopururik ez badu. Nik orain arte 15-20 langile izaten nituen udan, eta bost langile denboraldi osoan zehar. Orain ez dakit zer gertatuko den. Hasiera honetan ezartzen zaizkigun edukiera mugekin, oso zaila da negozio batek dituen gastuak estaltzea. Hala ere, Orion zortekoak garelako iruditzen zait, Udala laguntzeko prest agertu delako, eta bizi ditugun une zailtan eskertzekoa da horrela inplikatzeko".

"Ariketa fisikoari tokia egin behar zaio hondartzatan"

RAFA GONZALEZ DE TXABARRI GORPUTZ HEZKUNTZAKO IRAKASLEA ETA PRESTATZAILE FISIKOIA



Azken bi hilabeteetan, ohi baino ariketa fisiko gutxiago egin da, nabarmen, itxialdiaren ondorioz, eta Rafa Gonzalez de Txabarriren iritziz, horrek lotura zuzena du osasunarekin: "Ariketa fisikoa diodanean ez dut kirola esan nahi,

mugimendu fisikoa baizkik. Gizakion gorputza ariketa fisikoa egiteko dago *diseinatur*a, eta hori egin ezean, gaixotu egiten da. Sedentarismoak lotura zuzena du gaixotasunekin, eta itxialdian, kirola egin arren, inoiz baino bizitza sedentarioagoa izan dugu".

Uda garaian, pertsona bakoitzak erabilera desberdina ematen dio hondartzari; askorentzat, ariketa fisikoa egiteko primerako tokia da: urizkinan oinez ibili, igerian egin edo korrika aritu, olatuak hartu... Koronabirusa dela eta,

hondartzen erabilera mugatuko duten arauak ezarriko badira, horietan ariketa fisikoak tokia izan behar duela iritzi dio.

Herritar modura, beldurra die udan gerta daitezkeen jende pilaketei: "Oso ohikoa da hondartzak masifikatzea, eta kontuz ibili beharko dugu".

Bestalde, aurtengo udan haurren arreta berezia jarri behar dela uste du: "Haurrak eta adineko pertsonak izan dira itxialdian gehien galdu dutenak. Txikienek udaz gozatu behar dute, azken hilabeteetako esperientziari buelta ematen laguntzeko".



Derrigorrezkoa Uztailean matrikulatzeko!!

AURREMATRIKULA Ekainak 1etik 19ra

DOKUMENTAZIOA:

- NAN
- Ikasketa espedientea



Autobus
zerbitzua
Zumairaino

ORDUTEGIA: 8:00-18:00
Ostiralak: 8:00-14:30



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**



943-36 46 00

www.lhusurbil.eus

**ikasgunea.euskadi.eus-en ere
aurrematrikula egiteko aukera**

"Hondartza masifikatzeak kezkatzen nau"

MIKEL ATXEGA BODYBOARDLARIA ETA SOROSLEA

Mikel Atxegak orduak ematen ditu hondartzan. Itxialdia hasi zenean, gogorra egin zitzaion itsasaldetik urrutiratu beharra. "Zorionez, azken hilabeteetan itsasaldi gutxi izan dira. Gure alde jokatu du itsasoak oraingoan", adierazi du.

Atxega soroslea izan da azken udetan. Aurten hondartzaz gozatzeko aukera izango dela uste du, normaltasun minimo batekin: "Faseen kontua nola planteatu duten ikusita, iruditzen zait hondartzan ibiltzeko aukera izango dugula, baina ziurrenik, gutxieneko osasun neurri batzuk errespetatzea



behartuko gaituzte", esan du pentsakor.

Hondartzetan gerta daitezkeen jende-pilaketek kezkatzen dute: "Izan ere, eskua eman eta besoa hartzeko joera handia dugu denok. Hori nahikoa argi ikusi

da azken egunetan, baimenak ematen joan diren heinean".

Osasun krisiak sorosle lanean izan dezakeen eraginaz galdetuta, ez da ausartzen ezer argirik esatera: "Gurekin harremanetan jarri da izaz kontratatu gintuen enpresa, jakiteko hondartzak irekitzen badira lanerako prest gauden, baina hori da dakidan guztia". Pandemiak izango duen bilakaerak galdera ikur asko jarri ditu mahai gainean, eta zaila da hilabeterako aurreikuspenak egitea. "Agian, hondartzak irekitzen badituzte, sorosleok ohi baino lan gehiago izango dugu jendeari osasun neurriak betearazten, baina auskalo. Gauzak asko alda daitezke egun batetik bestera eta", bukatu du.

"Haurrek izan behar dute protagonista"

AMAYA LOIDI ANTILLA HONDARTZAREN ERABILTZAILEA

Amaya Loidiren txoko kutuna da Antilla hondartza. Itxialdiko egunetan egunero konektatu izan da han jarrita dagoen web-kamerara, itsasoari eta inguruari begiratua emateko. "Pena ematen zidan hutsik ikusteak. Etxean eman ditugun egunetan, faltan izan ditut hondartza batetik, espazioa bera, eta han biltzen garen lagunak bestetik", azaldu du. Bere iritziz, hondartza osasuna da: "Izan ere, kresala usaintzea, itsasoari begira egotea edo urizkinan paseatzea baino hoberrik ez da gorputzarentzat eta buruarentzat".

Udako hilabetei erreparatuta, baikorra da: "Uste dut izango dugula hondartzaz gozatzeko aukera, baina arau batzuk errespetatuta; eta, nire ustez, hala izan behar du, orain artean egin dugun ahalegina alferrik izan ez dadin", iritzi dio Loidik. Azken bi asteetan eman diren aurrerapausoek udari itxura hobea hartzen lagundu diote: "Ia 50 egunez etxean sartuta egon ostean, luxua da paseatzea edo txiringitoean kafea hartzea, eta pixkanaka, osasun krisiaren pertzepzioa hobera ari da egiten". Hala ere, kezka eragiten dio azken



egunetan terraza batzuetan ikusitakoak: "Atzera egiteko aukerak beldur pixka bat eragiten dit, egia esan".

Loidiren ustez, haurrek izan behar dute uda honetan protagonista. "Itxialdian erakutsi duten jarrera ikusita, inork baino gehiago merezi dute udaz bete-betean gozatzeko", agurtu da txikienekin gogoratu ostean.

"Azkenetakoak izango gara irekitzen, bide osoa batera zabaldu behar baita"

ROSA ETA NADETH ARRUTI ORIOKO DONE JAKUE BIDEKO ATERPETXEO ARDURADUNAK

Urtero milaka lagunek egiten dute Kostako Done Jakue Bidea, Euskal Herrian Baionan hasi, euskal kostaldea zeharkatu eta Santiago de Compostelara joaten dena. Iaz, Orioko Aldape baserriko Rosa eta Nadeth Arrutik KARKARi azaldu zioten azken urteetan gorakada nabarmena izan duela bideak. Beraiek dira herriko Erromesen Aterpetxeko arduradunak. Aurten, ordea, egoera guztiz bestelakoa da. COVID-19aren krisiak ezta egin zuenetik itxita daude, izan ere, ibilbidea bera eta aterpetxeak. "Iruditzen zaigu azkenetakoak izango garela irekitzen, bide osoa batera zabaldu behar baita", nabarmendu dute. "Guk erromesentzat zerbitzua eskaintzen dugu, eta beraz, ez du zentzurik aterpetxea irekitzeak, bidea itxita badago eta erromesek etorriko ez bada. Horregatik, bidea ireki arte guk itxita izango dugu aterpetxea".

Egoerak onera egin duelako bidea zabaltzeko baimena emango balute ere, aitortu dute ez dakitela nola antolatuko lirartekeen. "Galdera asko daude airean. Aterpetxeen bereizgarria gertutasuna da, eta ezinezkoa iruditzen zaigu erromesei harrera beirazko pantaila baten atzetik egitea. Horrez gain, aterpetxeetan ez dago banakako gelarik, erromesek literetan lo egiten dute, eta



gainontzeko guneak ere partekatu egiten dituzte: logela, sukaldea, egongela, duxtak eta komunak. Horregatik, gure kasuan, oso zaila izango da erromesen artean bi metroko segurtasun distantzia bermatzea. Zain gaude. Izan ere, astez aste, hartu beharreko babes neurriak aldatzen ari dira, eta ez dugu aldaketarik egiten hasi nahi, zein baldintzatan ireki dezakegun jakin arte".

Bestetik, osasun krisiak erromes mota aldatu dezakeela ere uste dute, aterpetxeko erabiltzaileen %60a atzerritarrek baitira. "Oraingoz mugak itxita daude, eta erromesak etxean daude gu bezalaxe. Ez dakigu zer gertatuko den udan, agian bertako jendea animatuko da bidea egitera, baina ezin da jakin pandemia honen ondoren herritarrek zer erantzun izango

duten, edo atzerritarrek etorriko ote diren".

Erromesak Santiagora

Aterpetxean denboraldia hasi berri zutela harrapatu zituen konfinamendu aginduak. Martxoan irekitzen dute aterpetxea, eta bi aste eskas irekita eduki ondoren, martxoaren 13an ixtea erabaki zuten, "ikusitako beste aterpetxeak ixten ari zirela eta ez zuela zentzurik guk irekita edukitzeak. Erromesek gaua gurean pasatu arren, bidean aurrerago lo egiteko tokirik ez badute, ez du zentzurik aterpetxea irekita mantentzeak", azaldu du Nadeth Arrutik. Koronabirusa pixkanaka hedatzen ari bazen ere, martxoko lehen asteetan erromesak izan zituztela adierazi dute; 80 lagun inguru pasa ziren denbora tarte horretan, eta Arrutitarrek egoeraren berri eman zieten Aldapen ostatu hartu zutenei. "Erromes batzuk bidean harrapatu zituen itxialdi aginduak. Dena dela, Done Jakue Bideko arduradunek ez zuten inor bidean botata utzi. Bide guztiak zeharkatu zituzten eta bidea egiten ari ziren erromesak Santiagora iritsi aurretik aurkitzen den aterpetxe handi batetara eraman zituzten, handik bakoitzak bere herrialderako bidea har zezan", argitu nahi izan du Rosak.

"Aian sustatzen dugun turismo eredua jasangarria da, bertako bisitariari zuzendua"

NEKANE ARRIZABALAGA AIAKO ALKATEA



"Aiako kultur eta natur ondarea dira bisitariak erakartzeko giltza". Ez dakite udan kanpotik etorritako bisitariak izango ote duten, baina Nekane Arrizabalaga alkateak uste du inoiz baino

garrantzitsuagoa izango dela lurralde mailan turismoa sustatzea, eta "guk horretan jarraituko dugu, orain arte bezala. Aiara etortzen direnei herri erakargarri bat eskaini nahi diegu, eta igerilekua berritzeko proiektua ere ildo horretan garatu dugu, herritarrentzat eta bisitariarentzat aisialdirako gune atsegina sortu nahi izan dugu". Izan ere, igerilekuko lanak aurrera doaz, eta lehen fasea uztaileko bukatzea aurreikusten du Aiako Udalak. Dena dela, COVID-19ak sortutako krisia dela eta, ez da udalaren esku

egongo irekiera eguna edo erabilera neurriak zehaztea. Hala, Aiako Udala ezohiko uda denboraldiari aurre egiteko estrategiak lantzen ari da herriko turismo eragileekin. Testuinguru berriak turismoari zuzenean eragingo diola badakiten arren, Aian sustatzen duten turismo eredua "jasangarria" dela azaldu du alkateak, "bertako bisitariari" zuzendua. "Lehen ere ez genuen jende pilaketarik izaten herrian, Aiara familiak eta naturaz gozatu nahi dutenak etortzen direlako", dio Arrizabalagak.

"Ekainean martxan hastea espero dugu"

MARIJE ARRUABARRENA OLASKOAGA GOIKOA LANDETXEKO ARDURADUNA

Martxo hilabete ona izan ohi da Aiako ostatuarentzat, sagardo denboraldiagatik. Olaskoaga Goikoa landetxean hilabete horretako asteburuetako okupazioa 100% izatea aurreikusten zuten, COVID-19ak kolpea eman aurretik. "Egun batetik bestera, birusak noraezean laga gintuen denok, eta denbora behar izan dugu erreakzionatzeko", aitortu du Marije Arruabarrena arduradunak. Olaskoaga Goikoan sei gela daukate bisitariarentzat, eta etxea osorik alokatu ahal izateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzte. Arruabarrenak uztail

aldean lanean hasteko aukera zerabilen buruan, baina azken egunetan izandako albisteekin, agian lehenago irekiko ditu ateak: "Ekaina erdialdean martxan hasteko moduan izango garela uste dut", zehaztu du.

Turismoarena izan da osasun krisiak gehien astindu duen sektoreetako bat; egoeraren gordina kontuan hartuz, eta Arruabarrenarentzat balio handia izan du Nekatur elkartetik jasotako babesak: "Informazio zuzena eman digute, fidagarria. Ikastaro bat ere antolatu zuten egoera honetan lana egin dezagun".



Bere iritziz, Aia bezalako herri txikiek jende gehiago erakar dezakete, orokorrean, pandemiak hiriburuetan sarraski handiagooa eragin duelako: "Erreserba egin duten madrildar batzuek esan digute hondartzak itxita badaude, txarrean Aian izango dutela zer gozatua, eta pozik daude: parke naturala, mendi ibilerak, jende pilaketarik ez...". ■■■

Elkarlanean egingo dugu Orio bizi-bizia

Orio herri txikia bada ere, bizi-bizirik dago. Kanpotik bisitan etortzen diren asko harrিতuta geratzen dira Orioko eskaintzarekin. Eta ez da gutxiagorako, merkataritza, ostalaritza eta profesional sare zabala baitu herriak. “Askotan, galdu arte ez dugu balioan jartzen daukaguna, eta konfinamenduak horretarako tartea ere eman digu”, azaldu dute Arkupeko kideek.

Itxialdiaren eraginez, bizitzarik gabeko herria ezagutu

dute oriotarrek hainbat astez, kolorerik eta kaleko girorik gabekoa. Pertsiana gehienak itxita egon diren denbora horretan, Orioren bereizgarria den herri giroa galdu egin da, eta negozio txikiek egiten duten ekarpenaz jabetzeko aukera eman die askori. “Herritarrek Orion erosteko apustua egiten badute, herria bizirik egongo da; saltoki-gune handietan edo interneteko nazioarteko plataformetan erosteko ohitura hartzen badute, berriz, herriko

aberastasuna kanpora joango da, eta horrek pixkanaka herriko giroa itzaltzea ekarriko du”, uste dute herriko merkatariek.

Arkupeko kideek argi dute sare bat osatzen dutela oriotarrek eta herriko mertakari, ostalari eta profesionalek; “sare horretako hari bat eteten bada, pixkanaka desegiten joango da”.

Horregatik, herriko merkatarik eta ostalariak ez dira elkarren artean lehiakide sentitzen.





"Merkatari txikiak herritarrengandik gertu gaude, tratu pertsonalizatua eskaintzen dugu eta horien beharretara egokitzen saiatzen gara"

LOURDES DORRONSORO

"Taldea bat gara, eta elkarlanean aurrera egin behar dugu, denok helburu amankomuna dugulako: oriotarren artean herriko zerbitzuak erabiltzeko ohitura sustatzea". Izan ere, Arkupeko kideen iritziz, negozio batek arrakasta badu, "horrek onura ekarriko die gainontzekoei, jendeak herrian kontsumitzeko ohitura hartuko duelako. Nahigabe ikaragarria ematen digu Orioko merkataria edo profesional batek pertsiana ixteak, herria itzaltzen ari dela iruditzen baitzaigu, eta hori ekiditea da denon nahia. Horregatik, herritarrak herrian bizi, erosketak egin eta kontsumitzera animatu nahi ditugu, denon artean herriak bizi-bizirik jarrai dezan".

Herritarrengandik gertu

Arkupeko kideek jakin badakite saltoki handietako eta



"Nahigabea sentitzen dugu Orioko negozio batek pertsiana ixten duenean. Ez gara elkarren artean lehiakide sentitzen, taldea gara eta elkarlanean egin behar dugu aurrera"

ROSANA ARRUTI

interneteko prezio eskaintzak hobetzea oso zaila dela eurentzat, baina horren ordez beste hainbat gauza eskaintzen dituztela ere argi dute. "Merkatari txikiak herritarrengandik gertu gaude, tratu pertsonalizatua eskaintzen dugu eta horien beharretara egokitzeko etengabeko ahaleginean ari gara gainera".

Gertatu izan zaie, bezeroren batek zerbait eskatu eta dendan ez izatea, "baina hori lortzen saiatzen gara beti, ahal den azkarren herrian bertan izan dezan. Batzuetan, gainera,

BATZUETAN URRATSA ATZERA EGIN BEHAR DA, INDARRA HARTU ETA AUERRERA EGITEKO



"Egoera berria aprobetxatu dugu herritarren ohituretara egokitzeko; besteak beste, sare sozialek eta internetak eskaintzen dituzten tresnak erabiltzen hasi gara"

ARGIÑE AZKARATE

galtzen ere atera gaitzke, zerbait ekarri eta bezeroak gustuko ez duenean, esaterako. Hala ere, bizitzako gainontzeko alderdietan bezala, argi dugu galtzen eta irabazten jakin behar dela. Une horretan ez dugu salmentarik egingo, baina hurrengo baterako bezeroa irabaziko dugu".

Behaldi garaian, batzuetan urrats bat atzera egin behar izaten da, hausnartu, indarra hartu eta aurrera egiteko, eta horretarako prest daude herriko merkataria. "Egoera berria aprobetxatu dugu herritarren ohitura berrietara egokitzeko. Besteak beste, sare sozialek eta internetak eskaintzen dituzten tresnak erabiltzen hasi gara, eta aurrerantzean ere horrela jarraituko dugu, oriotarren ondoan egoteko, denon artean lortuko baitugu Orio bizi-bizia izatea". ■■■



Azken luzean erabakiko da estropada

Itxura guztien arabera, azken momentura arte ez da jakingo traineru estropadak egingo diren edo ez. Traineruen Kluben Elkarteak bilera garrantzitsua egingo du bihar, maiatzak 30, larunbatarekin, eta batzarrean hartzen diren erabakiek eragin handia izan dezakete denboraldiari begira.

Testua: **Iñigo Gaiton**. Argazkiak: **Utzitakoak eta Iñigo Gaiton**.



Esperantza guztiak pandemiak udan eman dezakeen hutsartean jarrira dituzte arraun munduan. Elkartetako eta erakundeetako ordezkariak soka muturreraino tenkatzearen aldeko apustua egin dute azken asteetan, osasun krisiak hobera egin duela ikusita; gaia biltzen duen ziurgabetasunak, ordea, tentsioa sortu du batzuen zein besteen artean, eta aurten, txalupak uretara bota aurretik piztu da saltsa. KARKARAK estropalariei eman nahi izan die hitza, eta talde desberdinetan aritzen diren hiru arraunlariren inpresioak jaso ditu.

Egun gehiegi “kateari tiraka”

Mikel Arostegirentzat duela hilabete hartu behar zen estropadak jokatzearen edo bertan behera uztearen aldeko erabakia. “Beti hurrengo asteari begira eman ditugu azken bi hilabeteak, berrietasun edo behin betiko erabakiren baten esperoan, baina ez da halakorik gertatu”, hasi da hizketan San Pedroko entrenatzaile eta arraunlaria. Bere hitzetan, oso astunak ari dira izaten azken asteak. “Orduak eta orduak ari gara egiten egongelan edo garajeen ergometroan entrenatzen, bakar-bakarrik, kateari tira eta tira” azaldu du. “Ergometroan aritzea ez da mendira joatea edo itsasora ateratzea, jarduera benetan monotonoa da”, azaldu du makinan jardutearen laztasun psikologikori erreferentzia eginez.

San Pedrok maila galdu zuen iaz, eta aurten ez da TKE ligan ariko. Estropadak jokatzeko badira, Pasaiaiko taldeak aurreneko ligara giotzea izango du helburu. Xede horrek bete-betean egiten du talka

OAEko gizonezkoen traineru nagusia.

Orioko emakumezkoen trainerua herrian irabazitako bandera zaleei eskaintzen.



Mikel Arostegi.

Itziar Olasagasti.

**DENA ONDO BADOA,
EKAINEN LEHEN
ASTEAN TRAINERUAN
ENTRENATZEN HASIKO
DIRA ARRAUNLARIAK**

**ARRAUNAK
'NORMALTASUN
BERRIAN' TOKIA IZATEA
ESPERO DU URKO
REDONDOK**

duela bi aste argitara atera zen informazioarekin: Zarauzko Arraun Elkartek igoerarik eta jaitsierarik gabeko denboraldia egiteko aukera jarri nahi zuen mahai gainean. Informazioa haiek espero gabe isuri zen plaza publikora, eta hautsa harrotu zuen: “Estropalari gazte asko ditut txalupan, hogeitun bueltakoak, eta esan horiei ez luketeela igotzeko aukerarik izango; zer bizigarrirekin arituko dira leihan?”. Oraindik galdera ikur asko dauden arren, Arostegik argi du: “Aste hauetan guztietan entrenamendu saioei eutsi badiegu, puntu honetara iritsita, hobe denontzat estropadak egiten badira”.

Zer preziotan?

Itziar Olasagastik "argi pixka bat" ikusi du azken bi asteetan, eta horrek ilusioa berritu dio udari begira. “Itxialdiaren arinaldi fasean egin ditugun aurrerapenei erreparatuta, badut esperantza estropadak jokatzeko”, esan du baikor Orio AEko estropalariak.

Ergometroaren pantailatxoak sekula baino sasoikoago dagoela esaten dio Olasagastiri. “Normala da, aurretik sekula ez ditugulako sartu hainbeste ordu makinan”, azaldu du. Arinaldiaren hirugarren fasean, ekaineko lehen astean dena ondo badoa, traineruan entrenatzen hasteko moduan izango dira ziuurrik. Orduan ikusiko omen dute aurtengo “negu luzeak” uretako errendimenduan izango duen eragina.

Olasagastik itxialdiko lehen hilabetean gozatu egin zuen etxean entrenatzen. Gerora, ordea, luze egin zaio udaberria, eta galdera bat ibili du sarri bere baitan: “Zer preziotan jokatuko ditugu estropadak? Oraindik inork ez du ezer zehatzik esan edo konfirmatu, baina dirudenez, ligak egiten badira osasun neurri zorrotzekin izango da: estropadetara norberaren autoan joan, maskarak erabili, aldagaririk ez... Entzuten diren neurri posible horiek guztiak betez gero, arraun egiteaz gozatuko al dugu?”.

Arraunik gabe, tragediarik ez

Olasagastik emandako iritzi bertsua du Urko Redondok: “Arraunaren gauzarik onenetakoa taldekideon artean izaten dugun giroaz gozatzea da. Ordu asko ematen ditugu elkarrekin autobuseko bidaietan edo entrenamendu saioetan, eta osasun neurrien ondorioz sentimendu kolektibo hori galduko bada, denboraldiaren zentzua bera ere aldatu egingo da. Arrauna gozamina beharrean

karga bihurtuz gero, akabo; niretzat behintzat, ez du merezi”, azaldu du Hondarribiako estropalariak.

“Gizarteak bizi duen osasun krisia kontuan hartuta, ez litzateke tragedia izango aurten estropadarik ez jokatzea”, heldu dio berriz gaiari. “Bada eguneroko ogia arraunetik ateratzen duen jendea, eta horien kasuan, normala iruditzen zait estropadak egiteko aukerak azkenera arte eramatea. Gainontzeko guztientzat, ni barne, arrauna gozamina da, afizio eta gustu hutsagatik egiten dugun kirola. Dena den, lehiaketarik gabe geratzeak pena handia emango lidake”.

Baikorra da Redondo: “Duela hilabete oso beltz ikusten zen dena, eta orain, egoera orokorrak beste tankera bat hartu du. Itxialdia arintzen hasi zirenetik, agintariek beste martxa bat-edo sartu dutela dirudi, eta segidan-segidan askatasun gehiago ematen joan dira. Nahikoa denbora tarte laburrean, kalean nahikoa lasai ibili ahal izatera pasa gara”. Arraunak *normaltasun berrian* tokia izango duen esperantzarekin jarraituko du entrenatzen, azken unera arte. “Ezohiko egoera honetan kontrolatu ezin ditugun gauza asko daudenez, gure esku dagoena egitea tokatzen zaigu; gure kasuan, entrenatzen jarraitu besterik ezin dugu egin, argi berdea pizten bada ahalik eta sasoi onenean egoteko”.



Urko Redondo.

ZUMAIAKO HERRI ESKOLA

Eman izena
ADMINISTRARITZA ETA FINANTZAK
GOI MAILAKO ZIKLOA,
Zumaiako Lanbide Heziketan

Aurrematrikulazio Ekainaren 1etik 19ra
Ate irekiak izango dira
 Ekainaren 4an eta 5ean

Zatoz eta ezagutu gaitzazu!!

BERTATIK BERTARA idazkaritza@zumaiabhi.eus · 943-89 92 53

“Lokala itxi arren, herritarrei zerbitzu bera ematen jarraitzen dut”

Iban Egigurenek itxi egin du Eusko Gudari kalean zuen lokala. Lanaren zati handi bat Internet bidez lortzen duela ohartuta, aurrerantzean etxeko estudioan arituko da lanean.

Bat baino gehiago harritu da lokala itxita ikusitakoan.

Bai, inork sustoren bat ere hartu duela uste dut, kar-kar-kar! Duela hilabete batzuk hasi nintzen aldaketari buru-bueltak ematen, eta azkenean, apirilean hartu nuen erabakia.

Nolatan aldaketa?

Prozesu naturala izan da. Kaleko lokalak asko eman dit, eta oso eskertua nago herriko jendeari urte hauetan guztietan nigan izandako konfiantzagatik. Dena den, nire lanaren %90 Interneteko promozioaren bidez lortzen dut gaur-gaurkoz, eta horregatik hartu dut denda ixteko erabakia. Hala ere, herriko jendearekin lanean jarraitzea da nire asmoa, baina beste modu batera.

Etxeko estudiotik ariko zara lanean aurrerantzean, baina dendako zerbitzu berak mantenduz.

Halaxe da, eta herritarrei hori argi esan nahi diet: dendako zerbitzu guztiak ematen jarraitzen dut.

Badira berritasunak zure eskaintzan; besteak beste, inprimatutako argazkiak etxetik etxe banatzen hasi zara.

Bai, eta egia esan, azken asteetan primeran ari da funtzionatzen. Bezeroek argazkiak e-mail, whatsapp edo beste bideren batetik bidaltzen dizkirate, eta paperera edo nahi duten materialera inprimatu ostean etxean entregatzen dizkiet.

Drone kamera da beste nobedade bat. Argazki eta bideo ikusgarriak hartzen dituzu airetik gailu berriarekin.

Mireia Bravo bikotekideak eta biok drone-aren aldeko apustua egin dugu, eta legeak agindutako lizentzia, gidabaimen eta homologazio guztiak atera ditugu. Zerbitzu hau kontratatu duten bezeroak gustura geratu dira jaso dutenarekin; ezkontzetako bideoetan, adibidez, dezente erabiltzen ditugu aireko bideoak. Horri lotuta, bodas.net webgunean aipamen berezia jaso dugu bezeroek egindako iruzkin onengatik.



Bestalde, jaioberrien argazkiak haien etxeetan egiten dituzue orain.

Haur txikiak estudioara ekartzea sarritan nahasmena izaten dela ohartu ginen, eta gaiari buelta batzuk eman ostean, onena geu familien etxeetara joatea dela erabaki dugu. Egia esan, askoz ere giro atseginagoa sortzen da horrela argazkiak egiteko, eta hori atzeman egiten da irudietan.

Gogotsu ekin diozu etapa berriari.

Gure sektorean, beste askotan bezala, etengabe aritu behar izaten da ikasten, eta ilusio handiarekin eman dut urrats hau. Urte batzuk badira argazkiak egiten hasi nintzenetik, eta ordutik, merkatura egokitzen saiatu naiz. Gustura nago izan dudana eboluzioarekin eta bezeroei eskaintzen dizkiedan zerbitzuekin. Horrela jarraitu nahi dut urte luzez, gustuko lanean; nire ofizioak asko ematen dit bueltan. ■■■

Zerbitzuak

- Argazkiak eta bideoak: bodak, jaunartzeak, haurdunaldiak, jaioberriak, estudioko sesioak, enpresetarako lan korporatiboak...
- Drone kamera: bideoak eta argazkiak airetik
- Argazkien handiagotze eta inprimaketa lanak, tamaina eta material desberdinetan: foam, lientzoa, egurra, dibon, metakrilatoa...



IBAN EGIGUREN
Egiguren argazki eta bideo estudioa
egigurenargazkiak.com
egigurenargazkiak@gmail.com
607 54 27 63
943-03 04 25





Lanbideak ezagutzen

ARITZ LIZASO SALMENTA DEPARTAMENTUKO ARDURADUNA

Zein da zure lana?
Salmenta departamentuko arduraduna naiz.

Zein izan zen zure lehen lana?
Ume txikienezako parke batean aritu nintzen lanean. Bolak, koltxonetak eta abar dauden horietako batean.

Zenbat urterekin hasi zinen lanean?

Ba, oraingo lantoki honetan, 25 urterekin hasi nintzen lanean.

Ikasketa asko behar al dira lan hori egiteko?

Unibertsitate ikasketak, gehienbat.

Nola izena du zure lantegiak?
K.S.B. Itur izena du nire lantegiak.

Zer da zure lanetik zailena iruditzen zaizun gauza?

Arazoak sortzen direnean aurre egitea ez da gauza erraza izaten.

Zenbat urte daramatzazu lanean?

Postu honetan bost urte daramazkit, baina lantegia honetan dagoeneko 12 urte bete ditut.

ARAZOAK SORTZEN DIRENEAN AURRE EGITEA EZ DA GAUZA ERRAZA IZATEN



Zenbat pertsonarekin egiten duzu lan?

Lankide askorekin, baina ez dakit kopuru zehatza.

Zer ordutatik zer ordutara egiten duzu lan?

Goizeko 08:30etik arratsaldeko 19:00ak arte egiten dut lan.

Euskal Herritik atera al zara lan hori egiteko? Nora?

Bai, Alemanira, Estatu Batuetara eta Frantziara joan izan naiz, baina gehienbat Euskal Herrian aritu naiz lanean.

Zaila al da zure lana?

Batzuetan bai, besteetan ez.

Lan horretaz aparte egiten al duzu beste lanik?

Ez.

Ba al duzu nagusirik? Zintzoa al da?

Badut, bai; batzuetan bai, besteetan ez hainbeste. ■



Umeak kaletik

Apirilaren 26an, 14 urtetik beherako umeei etxetik kanpora ateratzeko baimena eman zitzairen, baina ordu bakarra, kilometro bateko distantzian, etxe inguruan, eta heldu batekin.

Lehenengo eguna zoramena izan zen, hilabete eta erdi etxean egon garelako eta desiratzen geundelako kalera ateratzeko. Batzuk ez zuten pertsonen arteko distantzia errespetatu, eta lagunekin jolasten geratu ziren, baina orokorrean, gehienok arauak errespetatu ditugu. Normala da lehenengo egunean hori gertatzea, eta orain lasaiago gabilta.

Nire ustez, ondo dago umeak kanpora ateratzea arnas pixka bat hartzeko, baina 14 urtetik gorakoak oraindik etxean daude [maiatz hasieran] eta ezin dute atera. Hala ere, kanpora irteteko beste ordu bat gehitzea izango litzateke hobierena, horrela, ordubetez goizean irtengo ginateteke eta beste ordubetez arratsaldean. Horregatik komeni zaigu haur guztioi arauak errespetatzea.

Animo denoi, hau dena pasatzen denean denok jolastuko gara elkarrekin. ■

LEHENENGO EGUNA ZORAMENA IZAN ZEN, HILABETE ETA ERDI ETXEAN EGON GARELAKO

Konbergentzia



ELI HUEGUN

Dibergentzia garaian bizi gara, niaren eta bestearen arteko banantze etengabea. Hobeto aterako ginela zulotik zioten, gizarte hobe izango ginela *hau dena amaitzean*. Kolektibotasuna da mezu horren arima, baina arima hori iritsiko ote da gorpuztera?

Guztion artean lortuko dugula diogu, baina ez dakigu zein diren horiek guztiak, zer osotasuni egiten diogun erreferentzia. Kolektibitate horretan guztiok kabitzen ote garen ala ni bezalakoak ez direnak ez ditudan kontuan hartzen. Edo erdibideko zerbait: kontuan hartzen ditut, baina gutxi.

Etxean geratu. Zakurrak banaka paseatuko ditut. Balkoiko inkisidoreak. Lanera joateak hil egingo gaitu. ERTEak. Umeak ere banaka paseatu. Komertzio txikiei lagundu. Kontsumitzera bultzatzen gaituzte. Albokoari lagundu. Zortzietan txalo egitera. Bederatzietan manifa. Nik ez dut txalorik joko. Taberna askok itxi egin beharko dute. Ezin dut ondoko herrira joan, baina mozkortu naiteke. Bozkatu ez. Festa bai. Bozkatu bai. Utzi bi metro. Ez jantzi maskarila. Diktadura!

Beti kexaka ari eta hobetzeko proposamenik ez dutenak. Inork baino balio erantsi handiagoa dutela pentsatzen dutenak. Norbere buruari baino, norbere zilborrari begira daudenak. Mundua beti kontra dutela esanez bizi direnak.

Ez dira mezu konpatibleak eta etenik gabe entzun ditugu. Gu ondo eta besteak gaizki. Indibidualismoak atera du zalaparta. Nirekin edo nire kontra. Enpatia baztertuta geratu da norberaren superbibentzian. Transbertsalitatearen ahanztura. Esnobismoaren alarde konstantea.

Momentuko gauza dela esango dute askok, baina nire honetan pentsatzen hasia nago ez ote den jada garenaren isla absolutu bat, bat-batean bortizki proiektatuta geratu dena, pandemiak eragindako aldaketak zetozen abiaduran asimilatzeke ezintasunak agerian utzi duena.

“Dena aldatuko da” genioen, baina ia denak berdin jarraitzen du: egoera anormalean jaio zirenak egoera anormalak hil ditu, boomerren egoa zerurainokoa da, millennialok etengabeko krisian bizi gara eta belaunaldi berriari izena jarri zaio baina izanik oraindik ez.

Hau guztia amaitzen denerako utzi dugu bizitza, *hau guztia* bizitzaren parte ez balitz bezala. Elkarrekikotasuna inoiz baino beharrezkoagoa ez bailitzan. Dibergentzia lehenbailehen konbergitzen badugu, bizitza posponitzeari utzi eta daukagunari ahalik eta sendoen heltzen badiogu, *honekin guztiarekin* bizitzea (eta ez amaitzea) arinagoa izan daiteke. ■■■

**"DENA ALDATUKO DA"
GENIOEN, BAINA IA
DENAK BERDIN
JARRAITZEN DU**



ANUSKA ESNAL

Urtebete zizelkari

Maiatzaren 26ean idatzit du haur. Gaur urtebete, Orioko historian lehenengo aldiz irabazi zituen EH Bilduk udal hauteskundeak. Ustekabean, herriak betiko inertzian jarraituko zuela sinetsita geundenean. EH Bilduko taldekideok oposizioan egongo ginela barneratuta hartu genuen abentura honetan sartzeko erabakia, Udaleko zinegotzi lana gure bizitzekin nola uztartuko genuen ondo aztertuta. Aurrez ere herrigintzan jardundakoak ginen eta lan horretan jarraitzeko asmoa genuen denok.

Oraindik ere oilo-ipurdia jartzen zait, Kolon Txikiko mahai hartan eserita geundela, bozka-mahai batean lehenengo aldiz irabazi genuela esan

zigutenean egin genituen salto eta irrintziak gogoratuta. Handik aurrera, nire poza beste emozio batzuekin nahastu zen, baina hasierako ilusioak berdin jarraitzen du nigan.

Behin hauteskundeak irabazita, makila hartu arteko egunak arraroak izan ziren. Argi genuen alkatetzak ez gintuela itsutuko. Herriaren lidertza eraman behar izanez gero, aske egin nahi genuen, pertsonak izan dezakeen aberastasunik handiena baita bere printzipioekin harmonian lan

GARAI BERRIETARA EGOKITUTAKO, BAINA ONDAREAN SENDO ERROTUTAKO HERRI BAT MARRAZTU DUGU

egitea, inoren mendeko izan gabe. Beraz, ekainaren 15era arte ez nintzen alkate sentitu.

Behin herriaren lidertza hartuta, alkatearen ordenagailu eta posta elektronikoko huts haiek, herrigintzaz, ekarpenez eta proposamenez betetzen hasi ginen. Herentziaz jasotakoaren eta egin nahi genuenaren arteko jostun-lanak eginez, han eta hemen bilerak egin eta proiektu sendoak eraikiz. Finean, garai berrietara egokitutako, baina ondarean sendo errotutako herri bat marraztuz.

Bizitzan, sarri, gauza onak bata bestearen atzetik etortzen dira, txarrak bezala. 2019. urtea berezia zihoan. Historia egiten hasita, inoiz ez bezalako uda bizi izan genuen, alironez beterik. Pentsa! Urte berean hiru liga eta, biribiltzeko,

HAUXE BAI JENEROA!



Orioko neskek lehenengo Kontxako bandera!

Baina ez pentsa dena festa zenik! Udaleko lanen martxa berehala hartu genuen eta, ondorioz, herrian lau urte hauetan egin beharreko ibilbidea diseinatzeaz gain, hori gauzatzeko behar diren aurrekontuak onartu genituen, aho batez, azaroan; aurrekari historikoa, baita ere! Garaiz eta alderdi guztien ekarpenekin egiteaz gain, proposamen iraultzailez bete genituen zerbakiak, lehenetasuna herritarren ongizatean jarrita.

Gaur, mundu mailako krisi batean gaude murgilduta eta horrek agerian utzi ditu sistemaren hutsuneak. Hamabost eguneko geldialdia nahikoa izan da kontsumoan oinarritutako ekonomia erortzeko, aurrez urte eta

erdian greban zeuden zaintza-langileek egia aldarrikatzen zutela bistaratzeko, gure aitona-amonon pentsioak ezin daitezkeela murriztu ohartzeko, osasungintzan izandako murrizketen ondorioak pairatzeko, oinarritzko errenta unibertsalaren eskaera berresteko... Bai, munduak izan duen geldialdiak erakutsi digu lehenetasuna pertsonen eta zaintzak izan behar dutela beti, kutsadura eta planetaren hondamendia gelditzea posible dela eta herriari denda txikiek eusten diotela.

Udalgintzarena epe luzeko lana da. Ezin da gauzak egiteko modu berri bat urtebetean ezarri, baina bide horretan goaz. Politika eta bizitza ulertzeko gure moduz herria zizelkatzen; pixkanaka, baina etenik gabe. ■■■

NIRE HONETAN



ONINTZA LETE ARRIETA

Zerrenda

Aurten pixka bat lehenago idatzi dut Gabon opariaren zerrenda. Urteroko txirtxileriekin hasi naiz, baina zertxobait konplikatua zaizkit. Hona: 1. Mesedez, lortu eskolak edo udalekuak edo zerbait irekitzea, ya. Langileak eta umeak, biak behar ditu gizarteak, eta telelana oso ondo dago, baina zaintza lanekin talka egiten ez duenean. 2. Kooperatu dezala gizarteak alor guztietan, elkarri topeka ibili ordez: lantegietan, eskoletan, agintalekuetan... Umeei jarduten ederki dakigu, baina berehala gelditzen gara agerian. 3. Emadazu formula, arren, arduratsuagoak izateko pandemia baten adinako larritasunaren aurrean. Errua ondokoari edo kontrarioari bota beharrean, axerikeriatan ibili beharrean, *gure esku dago* esan, eta nork berea egiteko fundamentuz, zintzo. 4. Azkena: opariak herrian erosi. Ez da bakarrik kaleak alaiago daudelako erakusleihu biziz beteta. Da, batez ere, zure eta nire diruaren zati bat Osakidetzara edo hezkuntzara bueltatzeko, ez irla batera edo lehendik diruz betetako poltsikoetara. Zerbait garestiagoak dira, batzuetan profesionaltasun gehiago eskertuko genuke, baina denok irabaziko dugu. Jo diezaiegun ostikoa sareko enpresa erraldoi atzerritarrei. ■■■



@garbineubeda

PUBLIZITATEA

K·U·K·U·A·R·R·I
ELEKTRIZITATEA

943-10 01 81 · 640 28 13 08
Zigordia, 52 beheka C · ZARAUZT
kukuarri@kukuarri.com

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

Kolon Txiki
edartegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

**KATU
HORIA**
albataritzaklinika

ESTROPALARI, 10
20510 ORIO
tel. 943 11 66 99

LORRIKIOA
668891129

kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17

KAÏOA

kaioa_denda
www.kaioa.es

**Lizaso
Dekorazioa**

Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com

KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com
665 70 33 47

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantzale kaleatik)

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com

Ordo elikatuz Bizi

MARIDO
ILEPAINDEGIA

Eusko Gudari, 8 beheka · ORIO
943-13 47 29

Zarauzt

Hileta Zerbitzuak
1962. urtetik zure zerbitzura

24 ordu zure zerbitzura
Beilatokia · Lekualdatzeak ·
Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35 · ZARAUZT
943-89 49 37
info@zarauztziletazerbitzuak.eus

Ez da fisika kuantikoa



TESTUA: XABIER SUKIA

Beti saiatu izan naiz euskara norbaiten ahotik atera zen lehenaldi hura irudikatzen. Zein izan ote zen euskarazko lehen hitza? Noiz eta non? Ze egoeratan? Hitz bat baino hots bat izango zen lehenbiziko hura. Soinu bat. Noiz ote zen? Europako hizkuntzarik zaharrena bada, kristo aurretik zenbat milaka urte lehenago? Europako etnolinguistentzat mirakulua, eta ikerketarako tresna interesgarria da euskara. Teoriak egiten dira haren jatorriaz eta ahaidetasunaz, kaukasiarrekin, afrikarrekin edo iberiarrekin loturak izan omen ditzakegu...

Pentsa noiztik datorren euskara gaur arte. Pertsonaz pertsona, gizaki haien ahotik dator esaten dugun hitz bakoitza. Herriko denda asko ere halaxe datoz, aspalditik. Historia dute. Familia asko dira Orion herritarrei zerbitzua euskaraz eskaintzen ari direnak urteetan. Negozio berriak ere asko sortu dira bidean.

Etetik irten eta kalean sartu gara. Ireki dira etxeetako leihoak eta ateak, desmuntatu ditugu salako parkeak, desarmatu balkoietako gimnasioak, deslotu korridoretako rokodromoak,

desegin logelako bulegoak, desinstalatu Jitsi Meet, Zoom eta Hangouts... Askok oraindik telelanean jarraituko baduzue ere, orain arteko martxa deseraikitzen ari gara. Des eta des. Deseskalatze honetan ez al gara deseuskaratuko.

Tabernak ateak irekita, dendak pertsianak igota, herriko zerbitzuak martxan. Eusko Gudari, Arrantzale, plaza eta hondartza inguruak bizi-bizi. Xalbadorrek zioen *herria da gorputza hizkuntza bihotza, 'eta dendak bizkarrezurra'*, erantsiko nioke. Edo herriaren artikulazioak. Herritarren arteko harremanak josteko guneak eta uneak bertan daude; lagun handiak txikitoak hartzen, txokolatezko muxuak, bixigu begiak, gominolazko errietak, letxugak bezain elkarrizketa freskoak, jende jantzia... Baina atzoko ogia baino gogorragoa da egoera.

Lazkaotxikiri behin galdetu zioten: *Zer egin behar dugu*

**XALBADORREK ZIOEN
"HERRIA DA GORPUTZA
HIZKUNTZA BIHOTZA",
ETA DENDAK
BIZKARREZURRA**

euskararen alde, Joxe Miel? Berak erantzun: *Zer egingo dugu ba? Hitz egin.* Eta galdera izan balitz: *Zer egingo dugu dendan alde?* Erantzungo zukeen: *Zer egingo dugu ba? Erosi.* Are hobeto, euskaraz erosita.

Jon Sarasuari entzun berri diogu beste geometria politikoa bat behar dugula euskararen gaiarekin. Oso goiko politika. Serioa. Euskal kulturgintzaren AHTak eta Guggemheinak behar ditugula. Benetako inbertsio ekonomikoak. Oriotarren hizkuntzara ekarrita, euskararen aldeko barrak, putomuroak, malekoiak, motondoak eta mutiozabalak behar ditugu.

Hainbeste babes neurri hartzera ohitzen ari garen honetan, musukoak, pantailak, esku larruak... ondo legoke geure burua gehixeago maitatu *zaindu maite duzun hori* eta gure dendetan gure hizkuntzan erosten saiatzea. Europako etnolinguistek mirakulutzat duten mintzaira hau egunero erabiltzea. Beraiek jarraituko dute euskararen gainean teorizatzen, hipotesiak eraikitzen. Guk nahikoa dugu dakiguna egitearekin. Nahi gabe ateratzen zaiguna egiten jarraitu, eta kito. Ez da fisika kuantikoa, ezta? ■

Begiak zaintzeko aholku errazak



TESTUA: EDURNE ERKIZIA

Koronabirusetik babesteko itxialdiak aldatu egin ditu haur, gazte eta helduon ohiturak, eta normalean baino ordu gehiago pasa ditugu gailu elektronikoei begira; batzuek lan egin edo ikasi behar zutelako jardun dute ordenadorearen aurrean denbora luzez, eta beste batzuk, aisialdi modura, tablet edo sakelako telefonoekin aritu dira. Hala, berrogeialdiak gorputza gogortu duen bezala, eragina izan du gure begien osasunean ere. Azken asteetan begi azterketa ugari egiten ari gara optikan, eta ohartu gara jendeak denbora asko pasa duela gertura begira, irakurtzen edo pantailen aurrean, eta horrek miopia txiki berriak sortu ditu, edo aurretik miopia zuten zenbaiti areagotu egin zaie.

Arrazoa sinplea da. Gertu dauden gauzak ikusteko begiek fokatu egin behar dute. Gaur egun, denbora asko pasatzen dugu gertura begira, eta gure begiak gailu elektronikoei iltzatuta ordu luzez egoten dira, pantailatik baztertu ere egin gabe. Gainera, mobilak adibidez, begietatik oso gertu edukitzeko ohitura dugu, eta hori oso kaltegarria da ikusmenarentzat. Izan ere,

egoera horretan begiak uzurtuta egoten dira, aurrean duguna fokatu nahian, baina gure begiak ez daude eginak denbora luzez ahalegin hori egiten jarduteko. Ondorioz, begia lasaitzeko urrutira begiratzen ez badugu, begietan nekea sortzen da. Begi artean karga, buruko mina, begi gorriak edota begietan hondarra izango bagenu bezala sentitzen dugu. Askok esaten dute iluntzerako begiak ixteko gogoia izaten dutela, eta nekatuta sentitzen direla.


Hasieran aipatu dudana bezala, egoera normalean, kalean batetik bestera ibiltzen garenean, sintoma horiek gutxiago nabaritzen ditugu, begiei lasaitzeko aukera ematen diegulako, baina konfinamenduak mugatu egin du gure mugimendu gaitasuna, eta begietan ere antzeman da. Horregatik, begietan nekea sortu ez dadin, garrantzitsua da orduerdiro begirada pantailatik

GORPUTZA GOGORTU DUEN BEZALA, KONFINAMENDUAK ERAGINA IZAN DU GURE BEGIEN OSASUNEAN

edo liburutik baztertu eta urrutira begiratzea. Horrek begiak lasaiaraziko dizkigu, eta ez ditugu kargatuta sentituko. Ordenagailu, tablet, edo sakelako baten aurrean orduak pasatzen ditugunean, maiz-maiz egin behar da ariketa hori; baita irakurtzen ari garenean ere.


Bestetik, konfinamendutik bueltan antzeman dugun beste ondorioetako bat begi lehorren gorakada izan da. Maskaren eraginez, botatzen dugun airea goruntz joaten da, eta horrek begiak lehortzen dizkigu. Begi lehorren sindromeak batez ere 50 urtetik gorako emakumeei eragiten die normalean, menopausiaren sintometako bat delako malko produkzioa gutxitzea eta kalitatea jaitea. Orain, maskaren erabilerarekin, areagotu egin da ikusmen arazo hori, eta bat baino gehiago etorri zaizkigu begietan hazkura sentitzen dutela esanez. Zorionez, begi lehorrek konponbide erraza dute, malko artifizialak botata nabarmen hobetzen baitira.

Bukatzeke, nabarmendu nahiko nuke garrantzitsua dela begiak zaintzea, gorputzeko gainontzeko organoak zaintzen ditugun bezala, gaurko min arina okertu eta arazo bihurtu deitekeelako etorkizunean. ■■■



niko
taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia




Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27

MENDIZABAL
AROTEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA




Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



ORIA
hartz klinika

Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-83 36 45

Oria Hartz Klinikak **ORTODONTZIA**
zerbitzu berria jarri du martxan.

Prebentzioa ezinbestekoa dela
jakinda, hartu aurre etorkizunean sor
daitezkeen arazoet.



Orioko
Herri
Ikastola

Herri Onurako Kooperatiba

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@jikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

PAKO IMAZ



pertsianak

PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



%100 etxean egina
PIZZERIA
KALETA

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46

ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Ander Zinkunegi
667 74 02 79



Portu
Erretetgia - Jaitzea

Kazolitat, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34

Karkara

Karkarako bazkideen datu basea eguneratu ahal izateko zure laguntza behar dugu!

Bete karkara.eus/bazkidetu/ ataleko formularioa edo deitu **688 85 96 82** telefonora eta zure datuak eman.



Karkara laguntzaile bazara, gainera, zain duzu jada gure poltsa!

*Bizi dugun egoera dela eta, datuak bidaltzean jakinaraziko dizugu non eta nola jaso poltsa.

Egin zaitez KARKARA laguntzaile

Zergatik KARKARA laguntzaile?

- Nire herriaz kalitatezko eta gertuko informazioa jasotzen jarraitu nahi dudalako. Hilero nire etxean eta uneoro **karkara.eus**-en.
 - Euskaraz bizi nahi dudalako eta euskararen biziberritzea bultzatu nahi dudalako.
 - **KARKARAlaguntzaile**aren abantailez gozatu nahi dudalako.
- KARKARAlaguntzaile** izateko deitu **688 85 96 82** zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Urteko kuota: 36 euro.

HILABETEKO ZOKETAREN IRABAZLEA:

Soiaren poltsa eta kartera pack-a.



Maria Jesus Alunda

Hil honetako
KARKARAlaguntzaile
zozketak:



Marrak

Oihal ekologikoaz egindako poltsa, helduleku urdin ilunarekin.

"Babushka" lamina. A4 neurrian.

"Siamesak" imana


"Marrak, 2019ko uztaren zati bat", kuadernotxo.



MR Euskalduna
Mantala eta taza


PARTE HARTZEKO:

Deitu 688 85 96 82 zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Parte hartzeko epea gaurtik ekainaren 15eko eguerdiko 12:00ak arte. Irabazlearen izena KARKARAKo hurrengo zenbakian argitaratuko da. KARKARAlaguntzaile eta KARKARAlaguntzaile berrientzat bakarrik.



Zortziko

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Zortzi dira guztira.




Itzala

Zein da trogloditaren itzal zuzena?

Entsalada bat, Hizki-zopatan




Entsalada hau osatzeko behar izan ditugun gai guztiak hizki anabasa horretan daude. Aurkitu.



Zein da zein

Pa! Idatzi maitasun gutun bat zure buruari. Gero, apaindu orria eta gutun-azala.



Ea asmatzen duzun zakur bakoitzaren izena.

- ▶ Tximistek eta Piratak belarriak tente dituzte.
- ▶ Bihurriren eta Feldespatoren isatsak luze eta iletsuak dira.
- ▶ Alaitzek eta Bihurrik bibote luzeak dituzte.
- ▶ Pitxitak bibote motzak ditu.
- ▶ Feldespatok eta Tximistek mihia agerian dute.

Zer dira aurpegiak ahorik gabe... Zer pentsatzen ari diren asmatzea zaila da, ezta? Marraztu iezaezu zerbait maskaran, alai daudela eman dezan.

Bai alai!



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA



Sagasti
LEIHOAK

Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 50
sagasti@sagastileihok.com
Arrantzale kalea, 65
20810 Orio

www.sagastileihok.com

Roberto Sagasti

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua



SU KIA
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29



Seguros Bilbao


Santi Barranco
Orioko Ordezkarria

Endaia Enparantza, 1 · ORIO · sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 · 688 71 48 69





Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 40 52
012137aa@hezkuntza.net



Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinerгияfisioterapia.com ·  

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupezioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesoaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresiboa (GAH), REDCORD.



BIYONA
BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA



etxea sukaldea
bainugela ...
leihok
etxeko altzariak

eraberritzekotan?

Bisita gaitzazu

 Abendaño poligonoa, 2 · ZARAUTZ ·  943-13 50 16 · www.biyona.net

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Logela alokagai. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tel.: 652 55 15 50.

LAN BILA

Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tel.: 676 44 13 27.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel.: 642 69 60 38.

Emakume venezuelar bat bere zerbitzuak eskaintzeko prest. Jende helduarekin ospitalean egoteko prest, egunez eta gauez. Tel.: 688 61 04 52

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel.: 641 44 60 70.

Lan bila nabil etxe garbiketarako eta haurrak zein helduak zaintzeko. Orduka lan egiteko. Tel.: 643 66 23 89.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel.: 631 82 44 52.

Neska arduratsua lan bila dabil. Barneko zein kanpoko langile bezala adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Karlene. Tel.: 631 87 86 59.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 602 08 98 86.

Etxeko eta zaintza lanak egiteko prest nago. Esperientzia dut eta arduratsua naiz. Lanerako gogoz nago. Wendy. Tel.: 612 46 42 43.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samantha. Tel.: 643 85 78 54.

Neska euskalduna naiz eta lan bila nabil. Udaran umeak zaintzeko eta etxeko lanetan laguntzeko prest nago. Arduratsua naiz eta oso alai, eta umeekin esperientzia ere badaukat. Berehala lanean hasteko

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

moduan naiz. Harremanetarako kontaktua: 656 73 51 03

Orion astelehenerik ostiralera haurrak (6-12 urte) zaintzeko bere burua eskaintzen du 17 urteko gazte arduratsua. Ekainaren 1etik aurrera hasteko aukera. Uztailaren 15a arte. Ordutegia: 9-13h (haurreko/eguneko 10€). Aukera ere bazkaltzen emateko, 9-15h (haurreko-eguneko 15€). Gehienez 3 haurrez osatutako taldea. Julen. Tel.: 688 62 45 73.

Orion, batxilergoko lehen urtea amaitu berri duen gazteak bere burua eskaintzen du klase partikularrak emateko, bai ikasturte amaierari begira, baita udarako errefortzu gisa. 9-12 urte bitarte. Ekainaren 1ean hasteko aukera. Orduko 8€. Julen. Tel.: 688 62 45 73.

LAN ESKAINTZA

Langile baten bila gabilta pertsona heldu baten zaintza eta etxeko lanak egiteko. Derrigorrezkoa da gidatzeko baimena eta paperak edukitzea. Tel.: 656 73 55 19.

ETXE BILA

Familia bat gara. Hiru gela dituen etxe baten bila gabilta. Tel.: 661 33 11 13.

Neska oriotar bat etxera alokatu nahian. Tel.: 677 28 95 21.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ordaindu du. 3.500 euro. Tel.: 657 77 45 11.

Volkswagen California T-5 salgai. Tel.: 670 42 09 66.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel.: 623 17 95 37.

Garaje itxi bat erosi nahiko nuke kotxe bat sartzeko tokiarekin. Herri erdialdean edo goiko kalean. Tel.: 666 18 41 69.

Portugesezko ahozko mintza praktika hartu nahiko nuke ingelesaren edo euskararen truke. Tel.: 691 34 48 56.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel.: 657 71 96 14.

ITSASO

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	01:02 eta 13:45	07:20 eta 19:41	☉
2	02:06 eta 14:41	08:20 eta 20:39	☉
3	03:03 eta 15:32	09:13 eta 21:32	☉
4	03:55 eta 16:20	10:02 eta 22:22	☉
5	04:44 eta 17:05	10:48 eta 23:10	☉
6	05:32 eta 17:50	11:33 eta 23:58	☉
7	06:18 eta 18:34	12:17	☉
8	07:03 eta 19:18	00:44 eta 13:01	☉
9	07:48 eta 20:04	01:31 eta 13:46	☉
10	08:33 eta 20:51	02:18 eta 14:33	☉
11	09:22 eta 21:43	03:07 eta 15:23	☉
12	10:17 eta 22:40	04:00 eta 16:20	☉
13	11:21 eta 23:42	04:58 eta 17:24	☉
14	12:28	06:01 eta 18:30	☉
15	00:46 eta 13:29	07:03 eta 19:32	☉
16	01:45 eta 14:21	07:59 eta 20:32	☉
17	02:37 eta 15:05	08:47 eta 21:11	☉
18	03:21 eta 15:44	09:28 eta 21:52	☉
19	04:02 eta 16:21	10:06 eta 22:31	☉
20	04:41 eta 16:57	10:42 eta 23:08	☉
21	05:19 eta 17:33	11:18 eta 23:46	☉
22	05:58 eta 18:12	11:56	☉
23	06:38 eta 18:52	00:26 eta 12:35	☉
24	07:21 eta 19:36	01:08 eta 13:18	☉
25	08:08 eta 20:24	01:53 eta 14:04	☉
26	08:59 eta 21:18	02:42 eta 14:55	☉
27	09:56 eta 22:17	03:36 eta 15:52	☉
28	11:00 eta 23:23	04:36 eta 16:56	☉
29	12:08	05:42 eta 18:04	☉
30	00:33 eta 13:16	06:49 eta 19:13	☉

FARMAZIAK-EKAINA

ORIO

2, 9 eta 12. LASA: Herriko plaza / 943-83 09 36

ZARAUTZ

3 eta 15.	ETXEERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
20 eta 21.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
4, 10, 16, 22, 26, 27 eta 28.	GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19
24.	GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
13, 14, 25 eta 30.	IRIARTE: Zinkunegi, Piltarxo Enea / 943-13 29 70
8.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
1 eta 19.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
5, 11, 17, 23 eta 29.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
6, 7 eta 18.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

Puntua jarrita

Iñaki Gurrutxaga.
(Doinua: balearen bertsoak)

1 Nere amonan goran zeate bizitzen

jatortasuna ez dik
gutxitan luzitzen
nik oraindik ez diat
ondo konprenitzen
hi non arraiotatik
aterako hintzen!

2
Halare bromak alde
batera utziak
zailtasunik izan dik
Andrian biziak
Cuencatik Santiora
tarte bat baziak:
batzuk badituk larre
motzean haziak

3
Bilobaz galdetzen dik
aukerarik bada
ta nola argitzen den
bere begirada!
Biok joan zineten
hemendik ta hara:
hura Euskal Herrira
eta hi Txinara

4
Asko bizitakoei
zeukeagun zorra...
haiek aditzea duk
gureztat altxorra
premia izan ditek
maisuu derrigorra
irakasle bikaina,
baina bai gogorra!

5
Ez diagu ikusi
guk bi hilabeten
denboran hori baduk
nahikoa erreten
ea gurera laster
etorri litekeen
eta zuen haria
ez dadila eten!

Hurrengo bertsolaria:
Kepa Maiz.
Puntua:
Eskuekin lanean
ta oinak buruan.

Hasi Bertsoan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Iñaki Gurrutxagari jarri dio puntua Eñaut Martik: "Nere amonan goran zeate bizitzen". Hurrengoari ere jarri dio puntua.





Goi maila eta erdi
mailako zikloak
ERAIKUNTZA

**ERAIKUNTZAN
LAN ASKO DAGO!!**

Enkargatuak, Margolariak,
Igeltsoarak, Pladuristak...



**AURREMATRIKULA
EKAINAK 1etik 19ra**



EAGI

GIPUZKOAKO
ERAIKUNTZA ESKOLA
FP CONSTRUCCIÓN
GIPUZKOA

+INFO www.eagi.eus

943 569 222

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZKETA